

ASTELEHENKO Goienkaria

2009ko irailaren 21a > Astelena > VII. urtea > 246. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Aisaldi
esparrua
erabiltzaile
izango direnen
beharretatik
sortu behar da"

Iraitz Agirre
Garaion
Naturartea > 08



G2a

Kulturate
Akustikoak oso
harrera ona > 32

ESKORIATZA
Zergen salbuespen eta hobarien
gaineko informazio kanpaina > 11

ARRASATE
Euskarazko ordenagailu askearen
aldeko ekimena, egunean > 15

MOTO-KROSA
Jokin Barandiaranek irabazi du
Bergara Hiria saria > 21

EKONOMIA > UDALEN FINANTZA EGOERA

Krisiari aurre egiteko neurri bila dihardute alkateek ere

ESKUMENAK Erakundeetatik laguntza txikiagoa jaso dute eta eskumenak zehazteko beharra ikusi dute udalek

AURREKONTUAK Aurtengo aurrekontuak koadratu nahian dabilta, baina udal gehienek zaitasunak dituzte horretarako

HERRITARRENGAN ERAGINA Proiektu batzuk ezingo dute aurrera egin eta zerbitzu murrizketak izango dira > 02-03

INGURUMENA > BIDEAK

Bidegorri gehiago 2010erako

Eskoriatzan,
Bergaran eta
Antzuolan tramu
berriak egingo
dituzte. > 04

Ander eta Angela Vilariño erraz nagusitu ziren Aramaioko rallysprintean

Eguraldiak buruhauste handiak sortu zituen zapatuan. Txanda batetik bestera goitik behera aldatu zen errepidea-ren egoera, eta bigarren txanda ze gurpilekin egin zaltzuan egon zen pilotu bat baino gehiago.

Vilariño anai-arrebek lehenengoz hartu zuten esku horrelako rallysprint batean, eta autoa apena ezagutzen bazuten ere, ez zuten kontrariorik izan. Ikusleendako lasterketa ez zen beste edizio batzutan bezain ikusgarria izan, baina errepidea ez zegoen arriskatzen ibiltzeko. > 34



ARRIOLAN Auto-zale gaztea, Arriolako horma gainean -toki seguruan-, lasterketaren nondik norakoak jarraitzen.

XABIER URTZELAI

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Ekonomia > 06
Auzoak > 07
Elkarritzeta > 08
Iritzia > 10
Herriak > 11-20
Kirola > 21-28
Kultura > 29-33
Sailkatuak > 34-35
Denbora-pasak > 36
Telebista-Irratia > 37
Berri-zakua > 38-39

MUSIKA > DISKO AURKEZPENA

Berri Txarrak taldeak jaia bihurtu zuen lan aurkezpena

Askoren aurreikuspenak bete ziren, duda barik. Euskal Herriko bazter askotako eta Spainiako hainbat musika zale batu ziren zapatu gaelean Eskoriatzako kirolegian, eta baita hori bete ere. Horren arrazoia? Lekumberriko Berri Txarrak taldeak Payola diskoaren aurkezpen ofiziala

han egin zuela, herriko Aitzorrrotz kultura elkartearren laguntzarekin.

Berri Txarrak talde indartsu eta sinesgarria da; eta horregatik ditu hainbeste jarraitzaile. Nafarekin batera, Deabruak Teilatetan eta Simbiosis taldeek borobildu zuten zapatuko jaia. > 29

FUTBOLA > 3.MAILA

UDAk 2-0 gailendu du Amorebieta

Aretxabaletak intentsitate handiz jokatu eta ondo irabazi zion talde bizkaitarrari > 22-23



Zira.
Nahi?

Zoaz 7. orrialdera

EKONOMIA > UDALEN FINANTZA EGOERA

Krisiari aurre egiteko neurri bila dihardute ibarreko alkateek ere

AURREKONTUAK Aurtengo aurrekontuak koadratu nahian dabilta, baina udal gehienek zaitasunak dituzte horretarako

IRATI AGIRREAZALDEGI > DEBAGOIENA Krisiaz berba egiten da kalean, lantegietan, dendetan, etxeetan... eta nola ez erakundeetan. Gure ibarreko erakundeak ere ez dau de krisitik salbu eta Debagoieneko hainbat udaletara jo dugu alkateek berba egiteko udalen finantza egoeraz eta erakundeek hartutako edo hartu beharreko neurrietaz.

Oñatiko eta Arrasateko alkateek esan digute une honetan euren udalen zorpetze maila ez dela hain handia, baina etorkizunarekin kezkatuta daude. "Arrasateko Udalaren finantza egoera une honetan *ona* da. Hau da, zorpetze maila baxua du. Baina kezkatzen egoera baten aurrean gaude. Kontuan izan behar da 2008ko diru sarreren murriketarako jorea 2009an areagotu egin dela eta ez dakigula non bukatuko den", esan digu Ino Galparsorok.

Oñatiko alkate Lurdes Idoiagak dio "gastu arruntee aurre egiteko Foru Aldundiak emandako dirutik tokatzen zaigu 2009ari dagozkion 1,5 milioi euro buelta tzea. Aurtengo kontuak oreakutta aurkeztu genituen, esan zigutzen kobratuko genituela 6.700.000 euro 2009an, baina zergetatik dato rren dirua murriztu bada, 5.200.000

euro tokatu behar bazaizkigu eta dirua bueltatu behar badugu, desoreka etorriko da".

Batzuk etorkizunarekin kezkatuta, eta besteak orain larri. "Aurreikuspenak ez dira betezen ari eta horrek zaildu egiten du hainbat gauzari nahi genukeen moduan erantzutea", esan digu Elgetako alkate Oxel Erostebek.

Pedro Lasagabaster Eskoriaztako alkatearen esanetan, "finantza egoera oso eskasa da. Zorpetua gaude, eta industrialdearen gaia hor dugu. Horretaz gain, kri siak ere badu eragina.

UDAL AURREKONTUAK Krisiak udal aurrekontuetan badu eragina, eta 2009koak koadratuko dituzten galdetuta, Erostebek dio horretan dihardutela.

Galparsorok 2009rako ez, baina aurrerantzerako badu kezkakrik: "Aurreko urteetako soberakinak ditugu eta horrek martxan dauden inbertsio garrantzitsuei erantzuten lagunduko digu. Dena den, azken urteotako *inertzia*-rekin jarraituta, datozen urteetako aurrekontuak koadratzea oso-oso zaila egingo zaigu".

Oñatiko Udalean, aurrekontuak koadratzea "ez da posible", Lurdes Idoiagaren esanetan:

DIRULAGUNTZAK Euren gainetik dauden erakundeetatik laguntza gutxiago jaso dute eta eskumenak zehazteko beharra ikusi dute udalek

"1.500.000 euro bueltatu behar baditugu eta Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiak horren zati bat ez badigute ematen, gauza batzuk ezingo ditugu egin. 2009ko aurrekontuan doitasun irizpide batzuk ipini ditugu gasto arruntei dagozkien hainbat partidetan aurreikusitako baino gutxiago gastatzeko (572.000 euro). Baina 350.000 euro erabili ditugu langabeak kontratatzeko. 2009ak kezkatzen nau, baina batik bat 2010ak. Sarrerak %25 murritzendira, gure gastuak kopuru berean jaitsi behar dira. Hori nola egin gizarte zerbitzuei babesa emanda? Dirulaguntzak eta beste hainbat kausa gutxituz".

Lasagabasterrek dio, aldakarrik ezean ez dela koadratuko: "Foru funtsaren ekarpenea oso garrantzitsua da eta aurreikusten da milioi erdi euro gutxiago jasoko dugula. Iazkoa kontuan hartuta eta aurtengoa bide beretik doa la ikusita, oso zaila izango da".

HERRITARRENGAN ERAGINA Aurrekontuetako gorabeherek izango dute, noski, eraginik herri tarrengan ere. Herrietan aurreikusitako hainbat proiektuk ez dute aurrera egingo, eta zerbitzuetan murrizketak izango dira.



Udalak arduratzen hasi dira euren finantzaketa-rekin; epe motzena arazoak izan ditzaketela ustea

Eudelek Udalei laguntzeko diru funtsa proposatu du

Euskadiko Udalen Elkartea proposamena egin du diru funtsa sortzeko udalei laguntzeko.

Horren aurrean, Ino Galparsorok dio egitea lortzen bada, "partxe bat gehiago" izango dela. "Dena dela, egoeraren gordintasuna arintzen lagunduko luke".

Oxel Erostarberen esanetan, "ez dugu gura limosnarik, gurea dena bakarrik eskatzen dugu. Eskumenak behar den moduan zehaztuko dituen legea falta da. Denbora larregi daramagu horren zain eta agian ordua iritsi da udalok planto egiteko".

Horren harira Lurdes Idoiagak dio, udalen ahuldaidea datorrela herriarrekiko harreman zuzene titik: "Kosta egiten zait herriaren beharrei, batez ere, gizarte zerbitzuetakoei, ezetz esatea".

Pedro Lasagabasterrek zera dio: "Zuloak estaltzeko positiboa da, baina hortik nekez aterako da ezer. Epe luzera begira hartu behar dira erabakiak eta eredu ekonomikoa aldatzen ez bada eta finantzaketa arautuko duen udalen legea egiten ez bada, anai pobreak izango gara".

ESANAK

"Udalok, zenbait zerbitzu emateko eskumena dugu baina ez ditugu bermatuta, eskumenoi dagozkien diru-iturriak"

Ino Galparsoro > Arrasateko alkatea

"Inbertsio batzuk ezingo ditugu egin; Urrutxuko kirol gune berria atzeratu egin beharko ugu; kri siak esango du noiz arte"

Lurdes Idoiaga > Oñatiko alkatea

"Foru funtsaren ekarpenea oso garrantzitsua da eta aurreikusten da milioi erdi euro gutxiago jasoko dugula"

P. Lasagabaster > Esko. alkatea

"Elgetako aurrekontua Elgetako errealtatera egokitzeko saiakeran gabiltza"

Oxel Erostarbe > Elgetako alkatea



JOSETXO ARANTZABAL

kaleetako konponketak, adibidez. Baina dirurik ezean gutxienekora jo behar dugu. Dirulaguntzak ere gutxitu egin ditugu, eta zerbitzuak mantentzen saiatu arren, murriketak egongo dira".

Ino Galparsororen ustez, "Udala denez herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa, zerbituetan murrizketa nabari-tuko dute. Aurreikusitako hainbat gauzek atzerapena izango dute. Lehentasun kontua izango da eta denboran luzatu egin dai-tezke proiektu batzuk".

Elgetan, legealdirako aurreikusitako proiektu garrantzitsuenak bideratuta daude: Salbador kalea egokitza, haurreskola,

ludoteka eta gazteleku berriak, Asentzioko proiektua eta Gerra Zibileko ibilbide tematikoa. Hala

esan digu alkateak. "Horri gehitu behar zaizkio pertsonal gastuak eta gastu politikoak jaitsi egin ditugula. Elgetako aurrekontua Elgetako errealitatara egokitzeko saiakeran ari gara".

ERAKUNDEEI LAGUNTZA

Udalek, horrelako egoeratan, euren gainetik dauden erakundeetara jotzen dutela uste dute askok, eta badirudi Eusko Jaurlaritza edo Foru Aldundia bezalako erakundeek ez dutela krisi-rik pairatzen. Baina alkateek hori argitu nahi izan dute.

Lasagabasterrek dio krisia sufritzen dutela: "Gure dirulaguntzak behintzat murritzten dituzte. Baina kontuan hartu behar da euren herritarreko harremana gurea baino urrunagokoa dela".

Oxel Erostarbe bat dator esatean inor ez dagoela krisi egoeratik salbu: "Ekonomia eredu erro-tik aldatu behar da eta horretaz jabetzen ez garen neurrian kostako da krisi egoeratik ateratzea. Erakundeetako langileen egoera ere begiratu behar da, herritarra-ko egoera larrian badaude, eurenda-ko lan egiten dutenkin sinatzen diren konbenioak lau urterako izatea eta urtero IPC + %1 igotzea ez da zilegia. Elgetan eskertu behar diegu Udaleko langileek izan duten jarrera. Urtero %1 hori langileak kontratatzeko bideratzea adostu dugu. Akordio horrek Foru Aldundian edo Jaurlaritzan azpikontratatuako langileen baldintzak hobetzen lagunduko luke eta lanpostu berriak sortuko lirateke. Irudimenarekin eta adostasunerako ahaleginarekin gauza lortzeko aukera dago".

Gaineratu du kontua ez dela Udalek Jaurlaritzari edo Diputazioari laguntzak eskatzea. "Behar den moduan zehaztu behar dira bakoitzaren eskumenak. Udalok gureak ez diren arduren gastuak ordaintzen ari gara eta horri irtenbidea eman behar zaio".

Lurdes Idoiagak azaldu digu zeintzuk diren zerbitzu horiek: "Herri Eskoletako inbertsioak Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak dira, baina udaloi eskatzen digu %40 gure gain hartzea; euskaltegiek edo epaitegiek gauza bera. Eskatzen dugu gure eskumenekoak ez diren zerbitzuak ordaintzeko. Batez beste gure aurrekontuen %30 dira, eta diru jaitsiera %25ekoa bada, badi-tugu beste zerbitzu batzuk eta horiek doitu beharko ditugu".

Ino Galparsororen esanetan, "Udalak jasotzen duen dirua zalantzan jarri beharreko zerga sistema batean oinarrituta dago eta sistema horren ondorioz egindako diru bilketa ez da banatzen administrazio bakoitzaren eskumenen arabera. Udalok zenbait zerbitzu emateko eskumena dugu baina ez ditugu bermatuta eskumen bakoitzari dagozkion diruituriak, eta beste instituzioen aurrean, ate joka ibili behar izaten dugu diru eske. Horregatik, ezinbestekoa da, behingoz Udal legea onartzea, udaloi eskumenak eta bitartekoak bermatzeko, beste erakundeei bezalaxe.

Patxi Lopezne neurri sorta krisiaren aurka

Krisiak euskal ekonomiaren duen eragina gelditzeko asmotan 300 milioi euroko neurri sorta aurkeztu du Patxi Lopez Lehendakariak. Trenbide, osasun eta hezkuntza baliabideetara eta euskal enpresei ekonomikoki laguntzera bideratuko dituzten inbertsioak lirateke. Gainera, 50 milioi euroko diru funts bat bideratuko dute udalendako. Gure ibarreko alkate gehienek komunikabideetatik jaso dute horren berri, eta neurri sorteit buruz gehiago jakitea nahi luketen arren, badute horren gainean esatekorik ere.

LAGUNTZAK NOLA BANATUKO DIRA?

Ino Galparsorok zera esan digu: "Izen abizenak (Irun, Eibar, Donostia, Lasarte...) dituen proiektuen zerrenda ikusi dut eta hori kezkarria da; klientelismo kiratsa dario... Badago 50 milioiko diru ekarpen bat *udalak laguntzeko*, baina ideiarik ere ez dugu nola banatuko den".

LANGABEENDAKO LANPOSTUEN SORRERA

"Nik prentsan irakurri dut Udalekin elkarlanean 7.000 lanpostu sortuko direla langabeendako. Oñatin aurten 45 lanpostu sortu ditugu: 22 zuzenean Udalaren kostuetatik, eta beste 10 Foru Aldundiaren erdibana. 27 lanpostu ordaindu ditugu, baina zeinek ordaindu behar digu? Nola gauzatuko da? Nik nahi nuke 2010erako 300.000 euro edukitzea Oñatiako langabeendako. Aurten Oñatiako langabeen %10ari eman diogu lana Udaleko lan poltsatik ordainduta. Hortaz, neurri horiek pakete barruan geratu beharrean, ea egia bihurtzen diren", esan digu Lurdes Idoiagak.

ZEHAZTASUN ETA ADOSTASUN FALTA

Oxel Erostarberen esanetan, "Patxi Lopez gobernuak gauza bat esaten du egun batean eta hurrengo egunean bozeramaile bat irtetzet da, esandakoa horrela ez dela esanez. Neurriak proposatu eta hurrengo egunean neurri horien gauean galdezko deitu zuten enpresariei, merkatariei eta herritarrei ezin zaie erantzun neurriak zehazteko daudela. Neurriak zehaztuta ez badaude, hobe ixilik egotea. Zehaztazun falta igartzen da Eusko Jaurlaritzan eta ezin da onartu horrelako proposamen bat egitea Foru Aldundietako eta Udaletako ordezkariekin, sindikatuekin eta bestelako eragileekin adostu gabe".

NEURRIAK HARTZERAKOAN BESTEON EREDU?

Pedro Lasagabasterrek krisiaren gaineko neurri sortaren gainean zerbait zehatzagoa jakin arte nahiago izan du horri buruz ezer ez esatea. Hala ere dio, Patxi Lopez besteon eredu izan behar dela dirua aurrezte kontuetan, gauza txikiatik hasita. "Patxi Lopezek krisiaren aurkako neurri sortaz dihardu, baina, udaletxe bakoitzera, alkateoi, bidali digute Eusko Jaurlaritzatik Patxi Lopez argazki bana, markoa sartuta eta mezulari bitarbez. Hortaz, horrelako gastuak murrizteko gai ez badira, jai daukagu. Besteon eredu izan beharko lirateke horrelako gauzetatik hasita".

ETORKIZUNARI BEGIRA

Oraina, krisian murgilduta, eta etorkizuna nola aurreikusten dute alkateek?

Erostarberen esanetan, "hurrengo bi urteak gogorrak izango dira, ez erakundeentzako bako-rrrik baita herritarrendako ere. Eredu ekonomiari buelta ematean dago gakoa, kontzientzia har-tu behar dugu kosta egingo dela azken urteotan bizi izan dugun egoera ekonomikora bueltatzea".

Idoiga pentsatzen ari da aurrekontuekin: "Urtero azaro-ko osoko bilkuraren onartzen ditugu aurrekontuak, baina aurten ez. Izan ere, ez dugu jakingo inork finantzatuko duen defizita".

Galparsorok ere hainbat gauza murizteko beharraz dihardu: "Diru askoz gutxiagorekin, kalitate eta kantitate berdinako pres-tazioak ematea zaila izango da, nahiz eta hobeto administratzen saiatu. Espero dut funtsekoan mantentzen eta egoera honen eragin negatiboa leuntzen asmatuko dugula".

Lasagabaster ez dago batere baikor: "datorren urtera begira oso beltz ikusten dut dena".

Etorkizunera begiratzeko oraina argi ikusi behar da, ordea, eta krisiari aurre egiteko udalek ez ezik, gaineko erakundeek eta herritarrek ipini behar dute euren aldetik zerbait.



Finantzaketa kuota personalizatuak

SMS SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO



Eskoriatzako bidegorriaren hegoaldeko zatia ekainaren hasieratik bukatuta dago.

MIRIAN BITERI

INGURUMENA > AZPIEGITURAK

Bidegorri tramu gehiago bukatuta 2010erako

Urtarrilerako, Eskoriatzako iparraldeko eta hegoaldeko bidegorriak lotuko dituzte

Antzuolatik Uzarraga auzorako bidea egin, eta Osintxu eta Mekolalde arteko argiztatuko dute

IKER BARANDIARAN > BERGARA

Joan den egubakoitzean Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko diputatu Carlos Ormazabalak eta Ingurumeneko zuzendari nagusi Javier Zarraonandiaik Aldundiak bidegorrien gainean 2009an eta 2010ean dagoeneko egin dituen eta aurreikusita dauzkanen lanen gainean azalpenak eman zituzten.

Are gehiago, azpimarratu zuten bidegorrien oinarrizko sarea osatzen denean Gipuzkoak bederatzi ibilbide eta 424 kilometro izango dituela guztira. Hor barruan egongo dira udal sareak, udal titularitatekoak, udalerriak eta auzoak lotuko dituena; eta udalerriak lotuko dituena.

Bidegorrien erabilera gainerako datuak ere jarri zituzten mahai gainean. Hala, Ormazabalak jakinarazi zuen 2008an bataz beste 5.300 bidai egin zirela egunean; horren arabera, bi milioi bidai urtean. Joan etorriren %78 oinez egin ziren eta gainerakoak biziak.

Datu horiek Gipuzkoako bideen behatokiak jaso ditu hainbat bidegorritako zatietan jarrita dituzten bederatzi kontagailu automatikoen bitartez.

2010EAN BESTE ZORTZI LAN
Aurten, 2009an, Garapen Iraunkorreko Departamendua beste bost bidegorri zati ireki ditu (11,4 kilometro), 8,5 milioi euroko

inbersioari esker. Horrez gain, eginda zeuden bost bidegorri zatiaren trazatura hobetu egin dute; eta 19 tunel argiztatu dituzte.

Bestalde, azaldu zuten une honetan 8,6 kilometro hartuko dituzten sei bidegorri zati egiten dabiltsa; eta 2010ean beste zortzi bidegorri zati egiteko lanak hasiko dituztela.

Epe luzeagoko asmoen artean, aurreratu zuten 2010etik 2017ra bitartean Aldundiak 133 kilometro bizikleta-bide egingo dituela.

ESKORIATZAN ETA BERGARAN
Debagoinari dagozkion tarteetan artean, honako hauek izan zituzten berbagai aurkezpenean.

Eskoriatzako hegoaldeko trazatu osoa argiztatu dute eta zarataren kontrako pantailak jarri dituzte errepidearen eta bidegorriaren artean. Kilometro bateko luzera dauka, eta aurrekontua 1.906.962 eurokoa izan da.

Eskoriatzarekin jarraituta, iparraldeko eta hegoaldeko bide-

gorriak lotzen dihardute, gehiegizko aldaera barik. Hilerriaren azpitik doan antzinako trenbide tunelaz baliatuko dira. 0,3 kilometroko luzera izango du, eta 797.572 euroko aurrekontua; 2010eko urtarrilean bukatzeko.

Bergarari dagokionez, udalerri horretatik hasi eta Antzuolako Uzarraga auzoaren sarrera bitartean 1,52 kilometroko bidea egiten dabiltsa. 675.960 euroko aurrekontua dauka eta 2010eko hasierarako bukatu gura dute.

Bergararekin jarraituta, Osintxu eta Mekolalde arteko zorua egokituko dute 4 kilometroetan zehar. 876.900 euro dituzte horretarako eta 2010eko maiatzean bukatzeko epea.

Eta udalerri horrekin bukatzeko, Bergara-Beasain bideari dagokion Beasaingo hirigunea eta Salbatore auzoa lotuko dituena egiten dabiltsa. Herrigunea eta industria eremua lotuko ditu 1,36 kilometro luzeran, eta aurrekontua 1.578.671 kilometrokoa izango da; 2010eko otsailerako.

ISTRIPUA

Hiru autok talka egin zuten Oñatin

Zapatu arratsaldean gertatu zen Zubillagako saihesbidean

I.B. > OÑATI

Herenegun, zapatua, istripu bat gertatu zen Oñatin, GI-2630an, Zubillagako saihesbidean. Ertzaintzak jakinazitakoaren arabera, 18:50ean noranzko berdinean zihoa zen hiru autok elkar jo zuten; hain zuzen ere, Citroen C-15, Renault Space eta Citroen Jumper batek.

80 urteko gizon bat arin zauritu zen, eta Debagoieneko Eskualdeko Ospitalera eraman zuten.

Istripuaren ondorioz, 19:00ak bitartean errepidea moztuta egon zen noranzko batean eta Ertzaintzak zirkulazioa modu alternatiboan bideratu zuen. Hain zuzen ere, garabiek autoak eramateaz gain, errepidea ere garbitu behar izan zuten.

> PRESOAK

Josu Arkauz eta Premin Sanpedro, espetxez aldatuta

Astean jakin dugu Arrasateko presoen taldeko bi kide espetxez aldatu dituztela azken asteotan.

Hain zuzen ere, Josu Arkauz Puerto III presondegitik (Puerto de Santamaría) Pontevedrara eraman zuten orain dela hilabete eskas.

Herri bereko Premin Sanpedro, berriz, Algecirasik Granadara eraman dutela jakin dugu. Aurretik Villabonan (Asturias) ere izan zen.

> TXERTOAK

Gripe arruntaren kontra txertoa egunotan Arrasaten

Gripe arrunta saihesteko kanpainaren barruan, osasun zerbitzuek jakinarazi dute datozen egunetan Arrasaten txertoak jarriko dituztela.

Hain zuzen ere, gaur, astelehenena, Uribarriko erretiratuen elkartean egongo dira; bihar, Santamarinakoan; eta eguztenean Musakolakoan; hiruetan 12:00etatik 13:00etara bitartean.

Kanpaina hori 65 urtetik gorakoei zein arnas, bihotz edo diabetes gaixotasunak dituztenei zuzenduta dago.



Argazkian ikasturte honetan Oñatiko Soziologia Institutura eterri diren ikasleak.

GOIENKARIA

BERTAKOTZEA > IKASLEEN ETA OÑATIARREN ARTEKO HARREMANA

Ikasleek eta bertakoek elkar ezagutzeko bidea

Oñatiko Lege Soziologia Institutua atzerriko ikasleak eta oñatiarrak elkar ezagutzeko Friendship izeneko ekimena abian jarri du

IKER BARANDIARAN > OÑATI

Soziologia institutuko ikasleak eta oñatiarrak harremanetan jartzearren ideia maiatzean sortu zen, masterren koordinatzarekin. Susana Arrese Europako unibertsitateen topaketa baten Finlandian izan zenean. "Finlandiarrak kontatu ziguten kanpoko ikasle bat joaten den bakoitzean, voluntarioak egoten direla bisiari harrera egin eta inguruak erakusteko. Gainontzko ordezkarioi oso ideia ona iruditu zitzagun". Hala, Oñatira bueltatu ahala, lanean jarri ziren.

OÑATIARRAK POZIK

Oñatiko Lege Soziologia Institutuan oraintxe hasi berri duten ikasturtean 19 ikasle kanpotar izango dira; eta dagoeneko 12 oñatiarrak eman dute izena horiek harremanetan jartzeko.

Oñatiarrak oso ondo hartu dute ekimena: "Batzuek esan digute bazela ordua. Askotan ikusten dituztela kanpotarrak herrian, baina ez zekitela euren gana zelan jo", azaldu digu Susana Arrese. Are gehiago, oñatiarraskok interesa daukate jende berria ezagutzeko, ingelesa praktikoa ere badirelako.

tikatzeko eta koadrilan gauza desberdinak egiteko, besteak beste; hortik, lortutako erantzun ona.

IKASLEENDAKO LAGUNGARRIA

Ekimena ikasleendako ere aproposa dela uste du Arrese. "Irailean eterri eta maiatzera arte egoten dira ikasleak, eta harremanak egin orduko alde egin behar izaten dute; pena da".

Hala, horri esker, aurten bisitari horiek Sanmigel jaiak oñatiarrerkin ezagutu eta izango dute zeinekin aisiajdia landu.

Ekimenaren koordinatzaleak gogoratu du ikasleekin harremanetan jartzeko interesa duenak berarengana jo behar duela (943 71 88 85), eta ingelesa ez dakinak ere lasai egoteko, Hego Amerikakoak ere badirelako.

POLITIKA > ALKARTASUN EGUNA

EA: "PSE-EEren euskaldun itxura, itxura besterik ez da"

EAJri eta Ezker Abertzaleari pausuak emateko eskatu zien Pello Urizarrek

I.B. > BERGARA

EAk Alkartasun Eguna ospatu zuen atzo, domeka, Nafarroan. Lehenik eta behin, Iruñea Labrit pilotalekua goraino bete zuten mitina egiteko. Horren ostean, baxaria egin zuten Ata-

rrabian eta omenaldia egin zioten hango alkate eta alderdikide den Peio Gurbindori.

Ekitaldi politikoan gaur egungo EAko zuzendaritzako kide guztiek eta alderdiak izan dituen lehendakariek esku hartu zuten.

'PIRATERIA POLITIKOA'

EAko idazkari nagusi Pello Urizar EAJri zuzendu zen esateko "erdibideak utzi eta pausoak eman" ditzala, "arriskurik gabe probetxua ateratzen saiatu beharrean". Horrez gain, ezker aber-

tzaleari esan zion "Anoetan onartutakoa errealitate bihur" debla. Horren ostean, PSE-EErendako hitzak ere izan zituen: "Euskaldun itxura erakusten duen arren, PSE-EE PPrekin batu egiten da Estatuarri men eginez".

Bukatzeko, gogora ekarri zuen alderdi barruko iritzi bereizketa onartzen duela, baldin eta gehiengoaren erabakiekin bat egiten bada. Eta azaldu zuen EA utzi dutenen karguak alderdiarenak direla, eta horren kontrako "pirateria politikoa" dela.

etxeko leihotik



Iker Barandiaran > 'ibarandiaran@goiena.com'

Jakin-minaren eta distantziaren ikuspegia

Orain dela gutxi Herbehereetako musikari batzuen bista izan dut. Euskal Herrian hainbat kontzertu egizituzten, eta herrialde hau eta hemengo jendea ezaugatzeko aprobetxatu zuten. Eurek kontatu zidaten euskal presoen argazkiak kalean jartzen jende asko ikusi zutela, eta haiei horren gaineko arrazoak galdu zizkietela jakin-minez. Batzuek erantzun zieten lagunak egunkari bat gida-tzeagatik eta alderdi politiko baten esku hartzeagatik espetxeen zituztela; beste batzuek lankidea, zigorra beteta eduki arren, kartzelan zegoela oraindik; adin nagusiko herriar batzuek azaldu zieten senidea bisitatzen astero ehunka kilometro egin behar dituztela, legeak kontrako eskatu arren. Baziren, baita ere, ETAren ekintzak bat egiten zuten batzuk ere; eta bikotea espetxeen gaixo larri zutenak ere. Horiek guztiak ezagutu zituzten biran barrena. Hala kontatu zidaten.

Horrez gain, azaldu zidaten ez dutela euskaldunen independentziaren edo burujabetasunaren premia ulertzen, haien esanetan dagoeneko Euskal Herrian bestelako lege-dia dagoelako. Azalpenak emateko nik eskatuta, erantzun zidaten Lekeition jaietan edukiontzia-eta erre zituztenak kartzelara joango direla; eta aldiz, Madril inguruan udal-tzain-eta erasotu zutenek isuna besterik ez dutela izango. Baliagarria egin zitzaidan haien begiekin ikustea.

> Plastikoa
EZ dakit ez ote den neurri propagandistikoa supermerkatuetan plastikoa kentzearena; alde batetik kentzen dutena beste leku batzuetan jartzen dute-eta. Onerako eta txarre-rako, gure belaunaldia plastikoaarena da...

> Txinatarrok
Harrituta gelditu naiz Arrasaten pertsona nagusiendako egin gura duten zirkuitu bio-osasuntsua Txinako medizinan oinarrituta dagoela jakitean; badugu zer ikasi Asiako herrialdeetaz aurreiriztiaz alboratuta



EAko zuzendaritza Iruñea Labrit kirodegiko ekitaldian.

EUSKO ALKARTASUNA

EKONOMIA > MERKATARITZA

Renove Planarekiko interesa dute dendek, baina informazioa behar dute

Denda batzuk hasi dira planean daudela jakinarazten; beste batzuk izena ematen dabilta

Merkatariak egingo ditu tramite guztiak deskontua lortzeko

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA
Debagoineneko altzari saltzaile txiki eta ertainak hasi dira mugitzen Eusko Jaurlaritzak martxan jarri duen altzariendako Renove Planean sartzeko, eta batzuk dagoeneko hasi dira jakinarazten plan horren barruan daudela. Adibidez, Arrasateko Udesignshop.com dendako Dorleta Ugarteren esanetan, "denda kanpoan kartelak ipiniko" dituzte. Hala ere, ez dago modu bakarrik era-bakita denda guztiak adierazteko planaren barruan daudela.

Renove Planean sartzen dira etxerako eta sukaldaroko altzariak, ez osagarriak edo bainuge-lako instalazioak; argiteria mota guztiak, eta koltxoak.

INFORMAZIO GEHIAGO ESKE
Baina Jaurlaritzak egindako iragarpenak interesa piztu badu ere -bai merkatariengan, bai eta eros-



Arrasateko Udesign.shop.com daukaten altzari denda.

ITSASO BEREZIBAR

leongan-, sortu duen nahasmena ere ez da txikia, batez ere, merkatarien euren kabuz lortu behar izan dutelako informazioa; eta kontsumitzaleek ere ez dute xehetasun gehiagoren berri izan

deskontuak zelan aplikatuko diren. Eta badaude nahasmena sor dezaketen hainbat alderdi.

Baldintzak hauek dira: gutxienez 300 euroko erosketak, %25eraino diruz laguntzeakoak,

eta gehienez ere 1.000 euroko deskontuarekin familia bakoitzeko. Plana irailaren 15etik dago indarrean, baina komeni da gogoratzea abenduaren 31ra arte edo planarendako dagoen bi milioi-

ko partida bukatzen denean bukatuko dela Renove Plana.

Bestalde, ziur eztabaida piztuko dutela beste arau batzuek. Adibidez, planak zehazten du "bezeroak dendara joan besterik" ez duela, "beste inongo gestiorik egin gabe"; eta deskontua merkatariak egin behar duela, zerga aurretiko balioaren gainean. Hori eta gero, erosketa-erre-serbaren edo erosketaren agiria eta, baldin badago, entregatu izanaren agiria SPRIRa bidali beharko ditu merkatariak; hori, 300 eurotik gorako erosketa bakoitzeko.

Aretxabaleako Arenaza altzari-dendako Mari Carmen Urangak informazio gehiago behar dutela dio. Eta bere kezka jakinarazten du: "Merkatariok aurreratu behar dugu diru hori faktura egiterakoan? Dirua aurreratu behar badugu, ez zait ondo iruditzen".

JENDEA BADABIL GALDEZKA

Bestalde, erosleek jakin beharreko da ere familia-unitate bakoitzeko 1.000 euroko muga dagoe-la egin daitekeen deskontuan, eta beti zerga aurreko prezioaren %25 deskontatuko zaiola.

Jendea galdetzen badabilela baieztautu digute galdetutako merkatari guztiak, eta eurek ere interes daukatela Renove Planean; hala, izena emanda ez daudenak, horretan dabilzala.



JOSETXO ARANZABAL

Nafarroako Kutxak itxi egin du Bergaran zeukan areto-bulegoa

Ibilbide laburra egin du Bergaran Nafarroako Kutxak zeukan bulegoak, joan den astean itxi egin dute-eta. Ibargarai kalean zegoen, eta bere berezitasuna zen itxura modernoko erabilera askotako areto bat zela bulegoa. Bada, joan den astearaz geroztik, itxitxa agertzen da. Bulego hori Nafarroako Kutxak 2007an abian zuen zabalkunde plan baten barruan ireki zuten, Gipuzkoa osoan beste bost bulegorekin batera. Arrasaten dago orain kutxa horren Debagoineneko bulego bakarra.

> HEZKUNTZA

Finlandiako ereduan oinarritutako lidergo eta berrikuntza gradua ematen hasiko da MU bihar

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateko Bidasoako kanpusean gradu berri bat ematen hasiko dira bihar, astelehena: Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza. Titulazio hori martxan jarrita, Finlandiako hezkuntza ereduan oinarritutako titulu bat eskaintzen duen Estatuko unibertsitate bakarra da MU.

> ERREPIDEAK

Garagartzara doan errepidea Arrasateko Udalarena izango da aurrerantzean

Gipuzkoako Foru Aldundiak Arrasateko Udalari Garagartz auzora doan errepidearen (GI-3553) gaineko titulartasuna emanago dio, Diputatuen Kontseiluak hala onartuta. Orain arte Aldundiaren izan arren, "errepide horren interes eta erabilera nagusia herri bertakoa" dira.

> AURREZKI KUTXAK

Arratsaldez gestio eta aholkularitza kasuak atenditzen hasi da Gipuzkoako Kutxa

Gipuzkoako Kutxako lurralde osoko bulegoak zabalik daude arratsaldeetan ere, joan den astelehenaz geroztik. Arratsaldeko ordu-tegia da astelehenetik egunera, 16:00-17:45; goizetan, 09:00 a 14:00. Edozelan ere, arratsaldeetan gestioa eta aholkularitza kasuak baka-rrrik atenditzen dituzte.

auzorik auzo

ZARIMUTZ > Eskoriatzako auzoa da Zarimutz. Gatzagarako bidean, eskumara hartuta iristen da bertara. Gero eta gazte gehiago dago auzoan; eta, horrek auzoari bizi poza ematen diola azaldu digu Igor Elkorobarrutia auzo-alkateak.



Elkorobarrutia, parrokiaren aurrealdeko zelaian; atzean, autobidea eta AHTko lanak.

A.E.

Igor Elkorobarrutia > Zarimuzko auzo-alkatea

"Autobidea ireki dute, eurak joan dira, baina ez dute auzoko errepidea konpondu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ESKORIATZA
Azkeneko bi urteetan dabil Igor Elkorobarrutia Zarimuzko auzo-alkate lanetan. Garai gogorra izan dela onartu du; bada, autobideko lanak eta AHTko lanak batu zaizkio. Aurrera begira, auzoan dituzten proiektuak azaldu dizkigu.

Zeintzuk dira gaur egun auzo-ak dituen arazo nagusiak?

Orain arte oso lasai bizi izan gara Zarimutzen, baina azkenaldian obra asko izan ditugu. Ondorioz, aurzora etortzeko errepidea, adibidez, oso gaizki geratu da. Esan daiteke errepidea dela arazo nagusia: zuloz beteta dago, kamioiak, hautsa...

Autobideko lanen arduradunek esan ziguten autobidea bukatutakoan errepidea konpondu egingo zutela; baina autobidea ireki egin dute, eurak joan egin dira eta errepidea konpondu barik dago. Ez dute bete emandako hitza.

Gainera, zarata handia ateratzen du eta babes pantailak jartzea eskatu duzue.

Bai, autobidetik pasatzen diren auto eta kamioiek zarata handia ateratzen dute. Eskatu genuen babes pantailak jartzea, baina erantzuna izan da ez dagoela dirurik. Kontua da tunela pasatu eta beste aldean dagoen autobide zatiak badituela babes pantailak. Hortaz, Araban badaga dirua eta Gipuzkoan ez? Guk

uste dugu euren jarrera ez dela egokia izan eta ez dutela euren hitza bete.

Orain, gainera, AHTko lanen obrak dituzue.

Bai, hori da. Orain egunez ikusten ditugu, baina gauez ere lanean ibiltzen dira, eta zarata ateratzen dute. Esan behar da, baina, AHTkoek ekarri duten jarrera beste modu batekoia izan dela. Oraingoz, jarrera ona era-kutsi dute.

Badaukazue auzo-lokalik?

Ez, eta hori da gure proiektuetako bat. Gure asmoa auzo lokalak egitea da, hemen, parrokiaren alboan. Gertatzen dena da momentu honetan ez dagoela dirurik... Hortaz, proiektua geratuta dago. Lokala egiteko aurreikusita zegoen lur zatia abadearena da, eta kantitate sinbolikoa salduko digu.

"Asmoa parrokiaren alboan auzo-lokala egitea da; baina orain ez dago dirurik"

"Auzoko jaiak sanpedroak dira; meza egiten dugu eta ondoren lucha"

Uste dugu auzo-lokalak bizitasun handia emango diola auzo-ari. Gainera, gero eta gazte gehiago bizi da auzoan, eta horrek ere bizitasuna ematen dio. Esan behar da orain dela gutxi haur bat jaio dela auzoan. Azkeneko urteetan jaio den lehenengo haurra da.

Badago beste proiekturik?

Bai, Mendibeko bidea konpontzea falta da. Hori Spainiako Gobernuak tokiko inbertsio-estarako estatu fondotik emandako diruarekin egin behar da. Eskoriatzan egiteko geratzen den lan bakarra da. Porlana botako dute.

Auzoak zer eskaintzen dio bisi-tariari? Kultura, ibilbideak...

Auzoaren erdialdean San Pedro parroquia daukagu, oso polita dena. Auzoko jaiak sanpedroak dira; normalean, meza eta lucha egiten dugu. Bestalde, bitxikeria bezala, parrokiaren aurrealdean harri bat dago. Alemanez idatzita dago, eta esaten dute gerra garaiaren hemen jausitako hegazkin batean zihoa nazi baten oroimenez dagoela.

Ibilbideak egiteko aukera polita dago auzoan. Lehengo trenbide zaharretik Eskoriatzaraino joan daiteke, lau kilometro inguru. Bestalde, menditik Kurtzetaera eta handik Aramaioara joan daiteke.

ASTELEHENKO Goienkaria astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa Iraileko zozketa

Sariak irabazteko

HARPIDETU!

Tel.: 943 08 10 50

harpidetza@goiena.com

Kuota: 20 euro

ZIRA



Bidali AG ZIRA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



AQUARIUM-ERAKO BI SARRERA



Bidali AG AQUARIUM
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



UMEENDAKO LIBURUAK



Bidali AG LIBURUAK
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



PENDRIVE BAT



Bidali AG PENDRIVE
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKETATUKO DA
ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



AHTEC NETBOOK LUG NO11
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.
Prozesadore: 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskuikit



- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztia!

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZA dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinazten dizugu zure datu pertsonalak Goien Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatuen sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzeari. Eskubidea izango duzu datuotuan sartzeko, hain zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

Garaion Naturarte elkartea azaroan sortu zuten. Jatorria, Deba-goienean dauka, baina euren

etxea Araban, Ozaetako Otaza auzoan dago. Aisaldi munduan ibilitako jendeak osatzen du

elkartea, eta euren ildoak bertakotasuna, sorkuntza eta naturadira. Elkarteko kide Iraitz Agi-

rrerekin izan gara elkartaren nondik norakoak eta jatorria aztertzen.

Iraitz Agirre > Garaion Naturarte taldeko kidea

"Aisaldi esparrua erabiltzaile izango direnen beharretatik sortu behar da"

T.MADINA/A.EZKIBEL > BERGARA
Iraitz Agirre arrasatearrak Gizarte antropologia ikasketak egin ditu. Herriko euskalgintza eta aisaldi elkartean lanean ibilitakoa, azaroaz gerotz Garaion Naturarte elkarteko kide da. Aisaldi esparru bat sortzea da euren erronka.

Zer da sortu berri duzuen Garaion Naturarte elkartea?

Euskalgintzatik datorren jendeak babestu eta bultzatutako proiektua da Garaion Naturarte elkartea. Izenak berak gauza asko esaten ditu: garai ona, saio ona... urtaroen inguruko irudiak. Gainera, arrasatearentzat eta debagoiendarrentzat Garaiok badauka aisaldiarekin harremana. Elkarteko etxea bertan daukagu, Ozaetako Otaza auzoan. Naturarte berbak ere dena esaten du: natura, artea, sormena... Gainera, kontuan hartu behar dugu han daukagun inguru zoragarria.

Ahalegintzen gara gure aisaldi ekintzak bertan egitean, eta sorkuntza da gure ildo nagusia.

Sorkuntzaz gain, zeintzuk dira elkartearen ildo nagusiak?

Garaion Naturarteak hiru ildo nagusi lantzen ditu. Gure irizpide nagusiak dira ondarea, bertakotasuna, euskalduntasuna bezala hartzen duguna eta baita arabartasuna; sorkuntza, uste dugulako sorkuntza atera beharreko zerbaite dela; eta, natura.

Non dago elkarre honen sorreña?

Sorrera Arrasateko euskalgintza eta aisaldi mundutik, Txatxilipurditik, dator. Hortik sortu zen ideia, orain dela hiru urte inguru. Orduan, Otañako etxea erabiltzeko aukera sortu zen. Ideia hori lantzen joan gara, eta ate ezberdinak jo ondoren lan talde handi bat lanean jartzeko aukera izan dugu. 18 pertsonako lan taldea sortu dugu, eta Txatxilipurditik eta bestelako elkarteeetatik babesia jaso dugu.

Lan talde horrek hasierako ideia hori landu eta bertan ekin-tza ezberdinak egiteko aukera izan du, aurrez aipatutako testuinguru konplexu eta zabal horretan. Hor sortu zen gaur egun garena.

18 pertsonak osatzen duzue elkartea. Ze esparrutatik etorritako jendea zarete?

Aniztasun handiko elkartea gara. Gehienak aisaldi munduan



Iraitz Agirre Txatxilipurdiko egoitzaren aurrealdean.

TXOMIN MADINA

ibilitako jendea gara, baina ikas-keta ezberdinak ditugunak. Enpresa mundutik datozenak, historia, arte ederrak, geologia, antropologia, lorezaintza... esparru ezberdinak jendea gara.

Zuen etxea Araban daukazue, baina Debagoienarekin lotura estua duzuela argi dago.

Hasierako jatorria Debagoienean dauka proiektuak, eta bertan lanean gabiltzan asko ere debagoiendarrentzak gara. Ikusi duguna da debagoiendarrentzako Garaio inguru hura aisaldi-rako gunean dela, horretarako bakarrik joaten gara. Hortaz, gure erronka da bertako ingurua ezagutzea.

Guretako sorpresa handia izan da Araban aurkitzea gure burua. Hango aniztasuna, bizi modu ezberdina ezagutzea... hain gertu dauden bi bailara izanda, ze errealitye ezberdinak bizi dituzten ezagutu dugu. Horren harira ikusten dugu batak beste-ari asko eman diezaiokela. Adi-

GARAIO

"Debagoinenako jendearentzat Garaio aisaldi gunea da, horretara joaten gara"

ANIZTASUNA

"Bi errealitate ezberdin dituzten bailarak gara, baina badago ezkontza posible bat"

SORKUNTZA

"Pertsona guztia sortzaileak gara eta berdin da ze esparrunat jarduten dugun"

bidez, Debagoienak euskalduntasuna eman diezaioke, eragin dezake; eta, era berean, Araban nekazal mundua dago. Bi bailaren artean badago ezkontza posible bat. Azken finean mugak guk ipintzen ditugu, baina zonalde geografiko berean bizi gara.

Nola antolatzen zarete dena koordinatu eta erabakiak hartzeko?

Hasierako erronka izan zen lan-taldea izango zena funtzionamenduan jartzea. Formazio ikastaro batzuk jaso genituen guri interesatzen zaizkigun ildoa jarraitze aldera. Batzar bidezko antolakuntza egitea erabaki dugu; guk geuk zehaztu dugu zertan lan egitea gustatuko litzai-guken.

Norberak bere burua lan egin gura duen esparruan kokatu du eta lan talde txikitian hartzentzira erabaki batzuk, baina ildo nagusiak talde handian erabakitzentzira. Informazio guztia denok daukagu.

Jende askoren laguntza iza-ten duzue; adibidez, erretiratuena.

Bai, esaterako, ortu ekologiko bat daukagu. Gutako asko kaletarrak gara; hortaz, ikasten gabilta. Irakaslea bertako nekazari bat da. Bestalde, erretiratuak ere askotan etortzen dira laguntzera. Ez gara talde autosufizientea, jende piloaren laguntza behar dugu. Gehiago esango nuke, behar dugu eta gura dugu. Aniztasun horretan aisaldi espazio hau sortzeko erronka daukagu, baina gure beharretatik baino gehiago erabiltzaile izango direnen beharretatik.

Elkartearen ardatzetako bat sorkuntza da. Zer da sorkun-tza, zela ulertz behar dugu?

Pertsona guztia sortzaileak gara, berdin da ze esparrunat jarduten dugun. Gure burua askatu behar dugu. Gure filosofiaren barruan hori dago; pertsona batekin lan egitean bere sortzaile-suna ateratzeko ahalegina.

Kutxa Auto Asegurua

Orain baditugu auto-aseguruak. Bila ibili beharrik ez.

Ongi etorri **Kutxa Auto Asegurua**. Diruaz gainera, buruhausteak aurrezten dizkizun asegurura. Estaldura zabalak, zerbitzu-kalitatea eta prezio ona ondoen konbinatzen dituen eskaintza. **Liberty Seguros** etxearen bermearekin. Eta, jakina, **kutxaren** konfiantzarekin.

Zatoz gu ikustera, eta xehetasun guztien berri emango dizugu.



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

* Kutxa Auto Liberty Seguros, Compañía de Seguros y Reaseguros S.A. ren produktu bat da. Kutxa, Biharko Vida y Pensiones-en banku/aseguruetako operadore esklusiboa da. Haren baimena dauka Biharko Aseguradora-rekin eragiketak egiteko, eta Bitartekarien Erregistro Administratibo Berezian inskribatuta dago C0654G20336251 zenbakirekin. Aseguru honetan bitartekari-lanak egiten ditu Biharko Aseguradora-ren eta Liberty Seguros-en artean izenpetutako banaketa-akordioaren testuinguruan.

kale inuesta

Autobideetaz gain, beste hainbat errepideetan bidesaria jartzea aztertzen dabilta. Zer diozu zuk?




Ana Belen Franco
Langilea
Bergara



Jon Andueza
Langilea
Bergara



Jose Luis Sasiain
Erretiratua
Bergara



Jesus Mari Blanco
Langabetua
Bergara

Gaizki. Horrela ondo dago, bakoitza nahi duen tokitik joan daiteke. Nahi duenak autobidea hartu eta ordaintzeko aukera du; eta gaintzokoek ordaindu gabe mugitzeko aukera izan behar dute.

Gaizki. Nahikoa bidesari eta zerga ordaintzen ditugu. Autobideak ere debalde izan behar dira. Orain dela 25 urteko autobideak dagoeneko amortizatuta egon behar dira. Euskal Herriko kantokiak gehienak debalde dira.

Gaizki. Iruditzen zait dagoeneko nahikoa ordaintzen dugula eta hortaz ez dut ondo ikussten oraindik gehiago ordaindu beharra. A-8 autobidea oso garestia izateaz gain, beti ilarak eta lanak daude.

Gaizki. Noizean behin joaten baldin bazara, tira; baina egunero mugitzen direnendako oso gaizki ikusten dut. Ni askotan Errenteriara joaten naiz eta autobidearekin eta erregaiarekin oso garesti irteten da bidaia.

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE

> **Emakume Txokoak aurtengo ikasturtera begira antolatutako ikastaroen ordutegia dela-eta**

Emakume Txokoak aurtengo ikasturterako antolatu dituen ikastaroen ordekin kexu dagoen arrasatearra jarri da kontakuan gurekin: "Etxetik kanpo lan egiten dugun emakumeok ezin dugu izena eman Emakume Txokoek antolatzen dituzten ikastaroetan, ordutegia dela-eta. Lan orduetan egiten dira horiek. Ordutegi zabalagoa izan dezatela eskatu nahi dien".

BERGARA

> **Agorrosin kirol gunea seinaleztatu barik dagoela-eta**

Bergarako irakurle batek deitu digu honakoa esanez: "Herriko hainbat instalazioen gaineko seinaleak aurki ditzakegu; ez, ordea, Agorrosin kirol gunearren gainekoa". Hori dela-eta, Udalari Agorrosinera joateko hartu beharreko bidea seinaleztatzeko eskatu dio.

GATZAGA

> **Tamaina handiko autobusak Gatzagatik ibiltzeagatik haserre**

Gatzagatik egunero ibiltzen den eskoriatzarra beldur da, esandako errepidetik Pesako konpainiako autobus handiak ibiltzen direlako: "Argi dago Gatzagakoek autobus zerbitzua izan behar duteela. Baino, neurri horretako autobusek debekatuta izan beharko lukete handik ibiltzea; hainbat bihurgunetan, kontrako norabidean doazen autoak geratu behar dira, horrek dakarren arriskuarekin. Arazoa konpondu daiteke tamainu txikiko autobusak jarriz".

usteak uste

Txomin Madina

Gurasoak eta hezitzailak

Aste honetako albiste deigarrinenetariko bat izan da zalantza barik. Guraso batibere semearen ikastetxetik urruntzeko agindua ezarri dio epaile bat. Arrazoia? Ikastetxeko zuzendaria jo izana.

Ez da horrelakorik gertatzen den lehen aldia; sarri entzun eta ikusi izan ditugu irakasleak kexu, gurasoen aldetik erasoak-eta jasan behar izaten dituztelako. Eta niri galdera bat datorkit burura: gurasoak horrelakoak direla ikusita, nolakoak izango dira hezten dituzten neska-mutikoak?

Adopzioaren aldeko apustua egiten dutenek proba, test eta elkarrizketa ugari gainditu behar izaten dituzte. Umea era biologikoan badator, baina, badirudi edozein izan daitekeela guraso... Eta gero ikusten dira emaitzak. Semearen ikastetxetik urruntzearaz gain, gurasoen eskola batera bidaliko nuke nik zuzenean.

zorroztaila

Elena Laka

Kontuz jateko gauzekin

"Datuak asaldagarriak dira, langileek enpresari askok baino zerga gehiago ordaintzen dituzte; zergen igoera sarrera altuagoak dituztendako izango da, baliabide desberdinak erabiliz", esan zuen Zapaterok. Larunbatean emango dira jakitera xehetasunak, aurrekontuen egitasmoa aurkeztean."

El País > 2009-09-20



Zapaterok azkenean kendu dizkio hostoak pitxiloreari. Bai, ez, bai, ez. Zer egingo krisistik ateratzeko, eta lehenik 400 euro oparitu zituen urbi eta orbi Errenten Gaineko Zergan egindako beherapen baten bitartez. Urtebete beranduago, neurriak ez du krisialdi garairako funtzionatu, eta erabaki berriak hartzea unea iritsi da.

Ez naiz ni irizpide aldaketa kritikatzen hasiko. Sarritan bildur handiagoa ematen didate irizpide bat eutsi eta hortxe tinko, milimetro bat aldatzeko gai ez direnek. Tetris-jokoan bezala, arazo berriek jarrera berriak eskatzen ditzkigute, ez bloke monilitikoak, beti ere oinarritzkoari eusten badiogu.

Krisialdian kontuak argiak dira. Baita kontuetan petral gabilzanondako ere. Lan eta hazkunde gutxiago, administrazioek ere baliabide gutxiago. Langabezi eta pobrezia handiago, gizarte laguntzak premia gehiago eta administrazioek diru gehiago behar gizar-teari laguntzeko. Ez da ulertzten zaila. Hurrengo pausa ere erraza: nondik aterako du dirua administrazioak premian daudenei laguntzeko? Erantzuna euri-jasak sortutako uholdea baino lehenago aurrekusten da: zergatik. Ondoren datoaz zailtasunak: zergak nola eta, eta batez ere nori igo.

Zapaterori, ilargia agertu zaio, eta jabetu da badaudela enpresariak langileek baino zerga gutxiago ordaintzen dutenak. Zein zerga igo-ko du orduan, errentaren gaine-koia, langileei oraindik gehiago era-gingo diena? Balio Erantsiaren Zerga, unibertsala, guztiok hain modu zabalean eta diskriminaziorik gabe ordaindu behar duguna? Zergatik ez sartu ondare-zergarekin, ondare handiak gehiago zergape-tu? Gasolina, tabakoa, alkoholaren gaineko zerga ez-zuzenak iku-tu, berriro ere herritarren gehiengo handi bat eragin diezaion?

Ez dauka lan erraza Zapaterok, ez EAEko zerga-autonomia kudeatzen diguten agintarieki. Eta samurra ez denez, guztiok hain beste kostako zaigunez, aldi berean eskatu beharko genieke halako aha-legina eginda jaso duten dirua, ganoraz goberna eta bana dezatela. Badakizue, bestela zenbat zerga igo behar diguten, adibidez, 55 milioi euro jasotzeko, hain zuzen, San Mames berritzeko behar dutena? Bada, horixe, tentuz.

"Nondik atera premian daudenei laguntzeko dirua? Zergatik"

"Zerga gutxi ordaintzen duten enpresariak daude"

Goienkaria

Argitaratzalea Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Zuzendaria: Eneko Azkarate Errredaktore burua Iker Barandiaran Errredakzioa Txomin Madina, Mirian Biteri, Xabier Urtzelai Oinarritzko diseinua Goi Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mirela Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzanei Gaintzaran

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 02
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otañar Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durango 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale • Difusioa: 4.383 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Herriak

Arrasate > 14 Bergara > 16 Oñati > 18 Aretxabaleta > 19 Eskoriatza > 19
Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20



> ARRASATE

Santa Marinako nagusiendako zirkuitu bio-osasuntsua, hilabete barru eginda > 14



> BERGARA

Artekalea eta Arruriaga kaleak bihartik hilaren 30era arte ibilgailuendako itxita egongo dira > 17



> OÑATI

San Martingo etxe tasatuetako izenematea zabalik dago hilaren 25era bitartean > 18

ESKORIATZA > ZERGAK

Udal zergen salbuespen eta hobarien gaineko informazio kanpaina abian da

TAULA Udal zergei 2009an aplika dakizkiekeen hobarien gaineko lapurpena jaso dute taula baten

ETXEETAN BANATU Esandako taula hori udalerriko etxeetan banatu izan dute egunotan

HELBURUA Kampaina horren helburua da udal zergen gainean herritarrok informatuta izatea

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Ziurrenik herritar bati baino gehiago gertatuko zitzaien noiz-bait udalean ordaindu beharreko zergak ordaintzera joatea eta zerga biltzaileak jakinaztear hobariak edo beherapenak dituela. Eskoriatzako Udalean horretaz jabetu dira eta herritarrei ordaindu beharreko zergetan dauden salbuespen, hobari, beherapen eta errekarguen berri tau-la baten bidez ematea pentsatu dute. Horretarako taula bat publicatu dute eta egunotan udalerriko etxeetan banatzen ibili dira.

Eskoriatzako zerga biltzaile Mari Carmen Ruanok azpimarratu duenez, taula horretan labur-tuta azaltzen dira udal zergei 2009an aplika dakizkiekeen salbuespenak, hobariak eta beherapenak: "Helburu nagusia da herritarrok informatzea; azken urteotan behin baino gehiago-tan gertatu zaigu herritar batekin egotea eta berarengan eragina duen hobariaren berri ez iza-tea; esaterako, ibilgailuen zergaren harira, ibilgailuaren jabeak %33ko edo hortik gorako minusbaliotasun maila izatea eta zerga ez duela ordaindu behar ez jakitea".

Azaldu digu, horrekin bate-ra, egunotan banatutako taulan kirolegiko tarifetan, ondasunen zergetan (kontribuzioa), obra eta ibilgailuen zergetan eta zaborraren tasen gaineko informazioa azaltzen dela.

KIROL ZERBITZUAK

Kirol zerbitzuei dagokionez, Eskoriatzako kirol elkartea antolatutako ekintzetarako eta kirolegirako honako taldeen-

dako tarifa bereziak daudela jakinarazten da: kide anitzeko familiak, erretiratuak, langabetuak, elbarrituak eta ikasleak.

ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA

Hiri izaerako Ondasun Higiezinen gaineko Zergan, kide anitzeko familiek eta babes ofizialeko etxebizitza eraiki berrietako jabeek %15 eta 50 arteko deskontua dutela azaltzen da; *Etxebizitza hutsaren programa*-rako utzitako etxebizitzenak %50eko hobia-ria dute eta etxebizitza izan eta hutsik dutenek, berriz, %150eko errekargua.

Landa izaerako zergetan, aldiz, 12/1989 Foru Arauan eza-rritako honako hiru salbuespenak daude: Hazkunde makaleko espeziez landatutako basoak, 600 euro baino gutxiagoko oinarri ezargarria duten ondasunak eta Baso Administrazioa onetsitako antolamendu projektuen menpeko baso birlandaketak. Azken horren harira, Foru Arauak dio salbuespenak 15 urtez iraungo du, eskabidea egin eta hurrengo zergalditik zenbatuta.

IBILGAILUAK

Ibilgailuei dagokionez, 14/1989 Foru Arauak honako bi salbues-

penak ezartzen ditu: ibilgailuan-ren jabeak %33ko edo hortik gorako minusbaliotasun maila izatea edo nekazaritzia ikuskari-zaren kartila duten traktore eta atoik izatea.

Horretaz gain, hiru hobari mota azaltzen dira Udalak egindako taulan: %100eko deskontua dute 25 urtetik gora dituzten ibilgailu *historikoek*; %75ekoa, ibilgailu berdeek; eta 27,5 euroko hoba-



SALBUESPENA Ibilgailuaren jabeak %33tik gorako minusbaliotasuna badu ez du zergarik ordaindu behar.

MIRIAN BITERI

ria, 14tik 15,99 zaldi fiskalera bitar-tekoak izan eta enpresa jarduerara lotutako ibilgailu guztia.

ZABORRA

Zaborraren harira, jakinaztean da zaborra jasotzeko puntutik kilometro erdira dauden etxebizi-zek ez dutela zerga ordaindu beharko; hiri lurrean zaborra jasotzeko edukiontzitik 150 metro baino gehiagora daudenek, lur ez urbanizagarriko tarifa; baserri

auzoetako ostalaritza lokalak 150 metro baino gehiagora daudenek, dagokien tarifaren %40a eta auzo-etxeek etxebizitzetako tarifa aplikatuko zaizkiela. Azkenik, obra zergetan ere hainbat hobi-ri daude aurreikusita.

ESKARIA IDATZIZ

Ruanok azaldu du zerga ordain-teean beherapenak aplikatzeko idatziz aurkeztu behar dela eskar-ria udaletxean, kasu bakotzera-

ko zerga-ordenantzak eskatzen dituen agiriarekin batera. Horren harira, aipatu du oraingoz herri-tar gutxik eskatu duela horren gaineko informaziorik.

Gaineratu du horren berri jaso gura dutenek 943 71 44 07 telefono zenbakira dei dezaketela; *zergabiltailea@eskoriatza.net* helbidera idaztea edo udaletxe-ko bigarren solairuan dagoen zerga-bilketa zerbitzuan zuzenean galdeztea ere badago.



Zapatuan, segway zirkuitua jarri zuten Biteri plazan; neska-mutikoak gustura ibili ziren horien gainean.

GOIENKARIA

LEINTZ BAILARA > MUGIKORTASUN ASTEA

Aurten ere arrakasta izan du Birzikleta azokak



Askotariko bizikletak jarri ziren salgai bigarren eskuko bizikleten azokan.

Arrasateko Seber Altuben 50tik bizikleta gora zeuden; erdia baino gehiago saldu ziren zapatuan

MIRIAN BITERI > ARRASATE
Egunotan Debagoieneko hainbat herritar Mugikortasun Astea murgilduta daude; tartean, Arrasaten. Aste bukaeran hainbat ekimen izan dituete han. Zapatuan, esaterako, birzikleta azoka jarri zuten Seber Altuben.

Udaleko teknikari Nerea Lazpiurrek azaldu digu pozik daudela herritarren artean azokak izandako harrerarekin. Aipatu digu saltzeke zeuden 50etik gora bizikleten erdia baino gehiago saldu zela han: "Denetarik zegoen saltzeko eta bereziki, prezio eta egoera onean zeuden umeen eta helduendako mendiko bizikletak saldu dira; normalean, azoka zabaldu bezain pronto saltzen dira produktu horiek. Erakusgai zeuden bospasei patineteak ere azkar saldu dira. Gakoa prezio erakargarria jartzean dago".

SEGWAY ETA AUTO HIBRIDOAK

Biteri plazan, berriz, segway zirkuitua eta emisio txikiko ibilgailuen erakusketa egon zen. Jende nahiko hurbildu zen haraino egun guztian zehar. Aurreko urtean bezala, segway zirkuituk gazteak ibili ziren bereziki. *Mugitzeko beste era bat* izeneko erakusketa horretan, besteak beste, Toyota, Chrevrolet edo Ford etxeetako auto hibrido, elektriko edo bioetanolaz dabiltsanak ikusteko aukera egon zen.

EHUN LAGUNETIK GORA

Domeka goizean, Eskoriatza-Arrasate-Eskoriatza bizikletan martxan ehun lagunetik gora parte hartu zuten. Eskoriatarrak, aretxabaletarrek eta arrasatearrek bat egin zuten horretan. Jarraian, Arrasaten, Iñaki Matas antzuolarrak Barreras ikuskizuna eskaini zuen. Irisgarritasuna landu zuen horretan.

Bestalde, Eskoriatzan, Mugikortasun Astearen barruan zapatuan aurreikusita zegoen Erraka Eguna bertan behera utzi behar izan zuten, eguraldi txarragatik.

ARRASATE > OKELA GISATU LEHIAKETA

Santamañakoek egin zuten okela gisatu gozoena zapatuan

Arrakastatsua izan zen Debagoieneko I. Okela Gisatu Lehiaketaren lehenengo txapelketa

M.B. > ARRASATE

Arrakasta itzela eduki zuen balarako harakinak antolatutako Debagoieneko I. Okela Gisatu Lehiaketaren lehenengo txapelketak. Zapatuan izan zen hori, Arrasateko Herriko plazan. Herriko zortzi elkartea gastrono-

Arratsalde osoan giro ederra izan basen ere, jendea 24 lapikoetatik ateratatakoko okela gisatuen 300 pintxo inguru banatzen hasterakoan pilatzen hasi zen. Iluntzean, euro eta erdiren truke, pintxo eta ardoa lortu ahal izateko ilarrak Kajoi tabernaraino iristen ziren. Okelaz gain, saiheski erreak dastatzeko aukera ere izan zuten plazan elkartu ziren arrasatearrek.

LORE GAZTEAK

Pintxoak banatzen ziren bitartean, Lore Gazteak dantza taldekoek emanaldia eskaini zuten; pintxoekin ateratako dirua jasoko duen taldeak, hain zuzen ere.

Zapatuan, esan bezala, Arrasaten egin zuten lehiaketa. Hilaren 26an Oñatik harituko du lekukoa.



Guztira, 24 lapiko prestatu zituzten elkartea gastronomikoek.

JOSETXO ARANTZABAL

ZERBITZUAK > PERTSONA NAGUSIENDAKO PARKEA

Nagusiendo zirkuitu bio- osasuntsua, hilabete barru eginda

Santa Marina azpian, bolalekuaren azpian ipiniko dute nagusiendo zirkuitu bio-osasuntsua

Gimnasia egiteko 10 aparailu ipiniko dituzte parkean; Arrauna eta Eskailera, adibidez

UBANE MADERA > ARRASATE

Hamabost egun barru obrak hasi eta hurrengo hamar egunetan bukatu egingo dituzte. Modu horretan, hilabete barru estrenatzeko moduan izango dute Arrasateko pertsona nagusiek parke berria.

Ez da, gainera, parke hutsa izango; baizik eta gorputzari era-giteko aparailuak izango dituen zirkuitu bio-osasuntsua da eraikiko dutena.

PASEALEKUTIK GERTU

Hain zuzen ere, Galizia eta Santa Marina kaleen azpiko aldea aukeratu dute parkearendako; bestela esanda, bolalekuaren azpiko aldea, Gernika Oinezkoen Zumardiko gunea.

Arrasateko Udaleko Gizarte Ongizate Sailarekin kontsultatu ostean hartu dute parkea han kokatzeko erabakia: "Oinezkoen pasealekuak gune horretan plaztxo moduko bat egiten du; hori

horrela, batetik, leku egokia da hura espazio aldetik; eta bestetik, jende asko ibiltzen delako inguru hartan", azaldu dute Udaleko Obra eta Zerbitzu Saileko ordezkariek.

GIHARRETAKO HAMAR APARAILU

Hamar aparailu ekarriko dituzte zirkuiturako, bakoitzak bere izen eta funtzi jakinekin: *Fondoko eskiak, Arrauna, Bielas dorrea, Metro dorrea, Pedalierra, Dorre luzagarria, Patina, Martxa, Dantza eta Eskailera.*

Gorputzeko hainbat atalako giharretako indarra lantzen laguntzen dute aparailuok. Adibidez, *Bielas dorrea* besoetako giharretarakoa da, baita *Metro dorrea* eta *Dorre luzagarria* ere.

Patina eta *Dantza*, berriz, lumbarrak edo gerrialdeko giharretako dira. Eta *Arraunak, Fondoko eskiak, Pedalierrak, Martxak eta Eskailera* izter eta oinetako giharrik indartzen dituzte.

Arrasatera ekarriko duten aparailuetako bat: *Patina*.

GOIENKARIA

Edozelan ere, aparatuok egoki zela erabiltzen diren azaltze-ko panelak ere ipiniko dituzte.

MEDIZINA TXINATARRA OINARRI

Gasteiztik ekarriko dituzte aparailuok, Yor enpresatik; hau da, Arrasateko parkeetako ziburuzaburu berri gehienak ekarri

dituen enpresatik: Santa Barbara eta Zerrajerako parkeetako jolasak, adibidez, Yor enpresarenak dira.

Nagusiendo zirkuitua medizina tradizional txinatarrean oinarrituta dago. Gaixotasun kardiobaskular, artritis eta halakoei aurre egiten laguntzen du.

ENPLEGUA > EMAUS

Jantziak birziklatzeko lantokia eta saltokia

Nafarroa etorbidean egokituko dute bigarren eskuko jantzien saltokia

U.M. > ARRASATE

Emausen eta Arrasateko Udalearen arteko elkarlanari esker, ehunen birziklatzea edo, bestela esanda, jantzien berrerabilera bultzatzeko iaz abiaturitako ekimenak hurrengo pausoan emango du: lantokia zabalduko dute, eta lantokiaren azpiko aldean, bigarren eskuko jantzien saltokia. Hori guztia, Nafarroa etorbidean.

Lantokian, oraingo, lau lagunek jardungo dute, gizarteratzeko programan ibilitako lau lagunek. Emausen lantokiak aukera eskainiko die datozen hilabeteotan kontratupean jarduteko, gizarteratzeko kontratuarekin. Lantoki horretan, besteak beste, Arrasateko edukiontziz zurietan batutako jantziak berriro ere erabiltzeko moduan prestatutako dituzte. Eta gero, jantzi horiek saltzko denda zabaldu gura dute, lantokiaren azpiko aldean.



Arantza Bajineta, Kulturako Jokin Zaitegi aretoan, egunean.

Arantza Bajineta > Gizarte laguntzailea

"Europako herrien artean, Espainiak ditu preso gehien"

U.M. > ARRASATE

Martuteneko egoera tristea eta gogorra da, kartzela guztiakoa moduan. Kartzela zigorrak luzegiak dira, eta gogorregiak ere bai. Hori pentsatzen du Martutenean 25 urtegizarte laguntzaile lanetan ibili den Arantza Bajineta. Hitzaldia egin zuen egunean Arrasaten.

Martutene esanda, zer etortzen zaizu burua?

Jende asko. Egoera gero eta eskasagoa eta larriagoa da. Lau pertsonako ziegia batean sei-zazpi daude. Ni hasi nintzenean 200 bat preso ziren eta aurren iritsi dira 400 izatera. Gero, batzuk beste kartzela batzuetara eraman dituzte; hala ere...

Ikusten da aldaketarik?

Oraingo kartzela-politikan bakarrik entzuten da gero eta presondegi handiagoak eta gero eta gehiago egingo dituztela. Eta gainera, bete egiten dituzte. Hori ez da irtenbidea.

Adibidez, Martuteneko preso asko ez dira arriskutsuak. Kartzeletan dauden asko gauza dira kanpoan bizi izateko. Batzuetan zigorrak dira oso-oso gogorak, oso luzeak; Europaren Espainiako Estatuak ditu preso gehien.

Kartzelak jendea zigortu eta baztertzeko erabiltzen dira?

Hori azaldu da. Hori ez dago paperetan idatzita, beste helburu batzuk azaltzen dira. Baino errealtitate...

**"Importanteena da
prebentzia eta
hezkuntza; kode penala
ere aldatu beharra dago"**

**"Egoera oso latza da
buruko gaixotasuna
dutena; kopuru handia
dago kartzeletan"**

Zer egin beharko litzateke?

Importanteena da prebentzia, eta hezkuntza. Zein balio lantzen ditugun. Eta kode penala aldatu beharra dago. Adibidez, alkoholemiarenagatik bi bider harrapatz gero, kartzelara bidaltzen dute jendea. Hori ez da bidea. Ikasi behar dugu pentsatzen gure kabuz. Joera da zigortza, eta hori ondo pentsatzen zaigu baldin eta norberari tokatzen ez bazaio.

25 urtean asko aldatu da preso mota?

Ni hasi nintzenean hasi ziren sartzen toxikomanoak, lapurre-tengatik. Gero, drogen trafikoarenagatik. Gero azaldu dira tratu txarrak eragiten dituztenak; atzerriko asko paper bakoak, lapurreta txikiak egin eta familia eta etxe-rik ez dutelako preso sartzen dituztenak; eta segurtasunaren kontra errepideetan egitearen. Beste egoera oso latz bat da buruko gaixotasuna dutena. Haietako kopuru handia dago kartzeletan.

TEKNOLOGIA BERRIAK > SOFTWARE LIBREA

Euskarazko ordenagailu askeago baten aldeko apustua

Eguenean, hilak 24, Ubuntu Install party-a izango da Gazte bulegoan: gura duenarendako Ubuntu sistema eragilea instalatzeko ekimena da

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Arrasateko Gazte Informazio Bulegoak aurrera darrai herriko gazteei denetariko ekimen eta ikastaroak eskaitezko xede irimoarekin. Oraingoan teknologia berriei heldu diete, gazteen-gan interes eta jakin-min handia pizten duen gaia, hain justu.

Software librea hartzute abiatu moduan eta egun honetan bertan egin dute zita: Ubuntu Install partya egingo dute. Gaia arrotza zaienendako, bi hitzetan, eguneko hitzorduaren helburua: norberaren ordenagailu eramangarría Gazte bulegora eroan eta bertan Ubuntu sistema eragilea instalatzea. Gazte Bulegoak iragarri duenez, "ekarri zure ordenadorea eta libreago eroango duzu".

SOFTWARE LIBREA OINARRI
Ubuntu sistema eragileak software librea du oinarri, hots, lizenzia askeko programak erabil-

tzen ditu. Eta filosofia horren defendatzaileak dira: jendeak sortua, jendearendako. Horren harira, dio Dorleta Kortazar Gazte bulegoko teknikariak, "ordenagailuen erabiltzaileen ehuneko handi batek lizenziadun programak erabiltzen ditu". Kortazarrek gaineratu duenez, lizenzia askeko programak, "doakoak iza-teaz gain, azkarragoak eta segu-ragoak dira". Hau da, dio Gazte informazio bulegoko teknikariak, "Excel, Outlook edo Explorer moduko aplikazioak erabili beharrean, beste berri batzuk erabil-tzea". Hala ere, programa berriak erabiltzera oitzean lego gakoa. Eta hori da, hain justu, eguneko hitzorduaren helburua, hasierako argibideak ematea, alegia.

GAIAN ADITUAK IRAKASLE
Esan moduan, irailaren 24an izango da zita. Bi orduz egongo dira Gazte bulegoan Ubuntu sis-



Patxi Gaztelumendi Gazte bulegoko koordinatzailea, Ubuntu sistema eragilea instalatua duen ordenagailu batekin.

J.B.

tema eragilea instalatzen, 18:00etatik 20:00etara, hain zuzen. Librezale –www.librezale.org– elkarteko adituak izango dira instalazioan lagundu eta hasierako erabileraren inguruko zalantzak argitzen.

DOAKOA, ETA EUSKARAZ
Euskarazko, doakoa, azkarragoa eta seguruagoa den sistema era-gilea instalatzeak ez du beste munduko sekreturik, Patxi Gaztelumendi Gazte bulegoko koordinatzaileak azaldu duenez:

"Ubuntu sistema eragilea duen CD edo USB memoria sartu eta klik eta klik egitea da, urratsak jarraitza". Gainera, Gaztelumendik jakinarazi du bi modu daudela sistema eragile berria norberaren ordenagailuan sartuta izateko. Batetik, ordenagailua pizterakoan aurreko sistema era-gilearekin batera bietako bat aukeratu ahalko da; eta beste modua litzateke aurrez instalatuta dagoen sistema eragilearen barruan, CD edo USB memoria sartuz Ubuntu abiaraztea.

AURREKARIARRAKASTATSUA
Ez da lehen aldia halako party bat egiten dela Arrasaten. Kultura-ten egin zen aurrekoan eta Gaztelumendik azaldu duenez, "oso arrakastatsua" izan zen. Izan ere, uste du Gaztelumendik, "tekno-logia berriei interesatzen dute gazteengan, eta eurekin landu beharreko gai zuzena da Gazte bulegoaren dako".

TEKNOLOGIA BERRIAK GAZTE BULEGOAN

Asmoa da zita hileko azken egunetan egitea

Ubuntu Install party-a izango da egun honetan, eta Patxi Gaztelumendi Gazte Bulegoak koordinatzaileak jakinarazi duenez, asmoa da hileko azken egunetan teknologia berrien inguruko bestelako ikastaroak egitea.

Zehaztu dute zein ikastaro emango duten urrian eta azaroan. Gaztelumendik aurreratu du urrian sare sozialek hartuko dutela protagonismoa. Sare sozialak zer diren azaldu, erakutsi, kezkak argitu eta horietan euska-raren presentzia nolakoa den aztertuko dute. Finean, Facebook, Twitter edota Tuenti moduko webguneen sekretuak azaldu dituzte.

Azaroan, bestalde, *Maping party* deritzona egingo dutela adierazi du Gaztelumendik. *Google Earth* aplikazioaren antzeko programa bat erabiliko da ikastaroan. Hori bai, aipatu aplikazioak -Open Street Map izeneko-software librea izango du oinarri. Ikastaro horrek helburu bi izango ditu: batetik, mapa libre bat osatzen joatea; eta, bestetik, mapa birtual horretan Arrasate kale izendegiak euskaraz jartzeari.

EMAKUME TXOKOA > EGITARAU BERRIA

Hamaika ekintza urte amaierara arte

Hainbat tailer eta ikastaro jasotzen dituen egitaraua prestatu du Emakume Txokoak

Ikastaroetan izena emateko epea gaur zabaldu eta irailaren 31n itxiko da, eta urriko lehen astetik abenduaren 18ra arte luzatuko dira

J.B. > ARRASATE
Emakume Txokoak hamaika eki-taldiz jositako egitarauarekin agurtuko du urtea. Ohikoa den moduan, denetariko ikastaroak eskaeiniko dituzte.

Besteak beste, arte dekorati-boak, sendabelarren ikastaroa, pilates ikastaroaren hastapena eta ijito dantzak landuko dituzte. Antolatu duten egitarauaren aurkezteko prentsaurrekoia emango dute urriaren 1ean, Emakume Txokoaren egoitzan bertan

(19:00). Egun horretan aurkezpen berezia egingo dute Emakume Txokoaren egoitzan. Ikastaro eta ekimenak aurkezteaz gain, ijito dantzen ikuskizuna egingo du Jaione Albenizek, eta Beatriz Egizabalek klown emanaldia eskainiko du.

PREZIO ONEAN
Ekimenotan izena ematea gura duenak gaurtik hilaren 30era arte izango du horretarako aukera. Arrasatearrek 28 euro ordain-



Ikastaroen artean, sendabelarren ikastaroa egingo dute. Irudian; asuna. GOIENKARIA

du beharko dute -langabeek, 14 euro- eta kanpotik datozenenda-ko ikastaroaren prezioa 34 eurokoa izango da. Prezio onak, hortaz.

Eta, azkenik, zer egin behar den izena emateko zein argibide gehiago jasotzeko? Bada, Emakume Txokora jo edo 943 79 41 39 tele-fonora deitzea, besterik ez.

EMAKUMEEI BEGIRA

Ikastaroak emakumeei begira antolatu du Emakume Txokoak, ulertzeko denez. Hala ere, ikas-taro batzuetan gizonezkoek par-te hartzea aukera izango dute. Aipatzeko da azaroaren 5ean Maria Galindo zuzendarri boli-viarria Kulturaren izango dela.

> INGURUMENA
Tailerrak Seber Altube plazan Mugikortasun astea agurtzeko

Bihar, martitzena, amaituko da Europako Mugikortasun Iraunkorren astea Arrasaten. Mugikortasun eta irisgarritasun tailerrak egingo dituzte Seber Altube plazan, 17:00etan.

Irisgarritasuna lantzeko jarduerak egingo dituzte eta oztopo ibilbidea jarriko dute.

> ERLIJIOA
Katekesiko lehen urtean izena emateko irailaren 23a eta 24a

Katekesietan hastear da ikas-turte berria. Hala, San Juan Parrokan zein San Frantzisko elizan Katekesian izena eman gura dutenek irailaren 23an edo 24an pasa beharko dira Abade etxearen lokaletik, 18:00etatik 19:00etara. Lehenengoz katekesia egingo dute-nei dago zuzenduta.

Anne Bernaerts > Belgikako berargarra

"Anaidi izendatzeko ekitadian malkoek ihes egiten zidaten"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Anne Bernaerts -Zus esaten diote lagunek- belgikarrak 51 urte darama Bergarara etortzen. Ondo ezagutzen du herria, eta Anberesen beste lagun du hemen. Hain dira horrela gauzak, Erreileno eta Tostoen Kofradiak ohorezko anaidi izendatu zuen aurreko domekan.

Nondik dator Bergararekin duzun harremana?

Espaniako gerraren garaian, gure aitaita eta aita zirenek jardun zuten Euskal Herriko eta Espaniako umeak Belgikan ezartzen laguntzen. Beste batzuen artean Bergarako umeak ere joan ziren, Maria Oianguren irakaslea lagun zutela. Maria hiru edo lau urte geratu zen han eta gure aita eta aitaitarekin adiskidantza handia egin zuten.

Urteek aurrera egin zuten, gerra bukatu zen, aita ezkondru egin zen eta gu guztioak jaio ginen. Oianguren familiari dagokionez, lau seme-alaba zituzten, hiru alaba eta seme bat, guztia ezkongabek, eta adinean gora zihoazena. Hala, esan zioten aitari etxearen ume txikirik ez zutenez eta hark, aldi, asko, bidaltzeko bat eurenera udako oporrik pasatzera, ondo zainduko zutela-eta. Eta niri tokatu zitzaidan. 1958. urtea zen.

10 urte zenituen orduan.

Bai, eta gaztegia nintzen hala jarduteko.

Zergatik?

Batik bat, hizkuntzagatik. Flandesera baino ez nuen hitz egiteko.

ten eta hemen ez zuen inork uler-tzen. Gainera, adinean gora zihoazen lau seme-alaba zeuden etxe hartan. Nahiz eta 20 urte izan, nik 10 izanda, oso nagusiak iruditu zitzazkidan.

Negar asko egin nuela gogoratzen dut, eta aitari ere sarri deitu niola, bila etor zedin.

Baina errepikatu egin zenuen.

Izan ere, nik ikusten eta nabaritzen nuen jendea oso adeitsua eta ona zela, nahiz eta ez nien piperrrik ulertzen. Hala, Belgikara itzuli nintzean, helburu garbia neu-kan: egunero gaztelaniazko 20 hitz ikastea. Hurrengo uda iritsi zenean hona etorri nahi nuen berriak, ikasitakoa praktikan jartzera. Eta poliki-poliki hizkuntza ikasi nuen. Ordutik urtero etorri izan naiz.

Hasiera-hasieratik ezin hobeto hartu ninduten Oianguren familiakoek. Asko maite izan naute eta baita nik haiak ere.

Bada, gaur egun lagun ugari dituzu.

"Bergarara lotu nauena jendea izan da, inolako zalantza barik"

"Neurri baten, Bergarari zor diot bost hizkuntza jakitea: txikitan etorri eta ezin komunikatzeak ematen duen amorruari"

Uste dut baietz. Kalean asko ibili izan naiz, asko gustatzen zait eta, horrez gain, bida, lagun batek beste bat aurkezten dizu eta haren beste bat... modu horretan sarea zabaltzen joan da.

Bergarara lotu zaituena jendea izan da.

Erabat. Jendearen adeitasuna, zuen ohiturak asko gustatu zaizkit. Hemen lan asko egiten da, baina 17:00 edo 18:00 aldera lanetik irten eta ardo bat hartzeko elkartzen zarete lagunok. Lagunarte horretan egon daitezke, gainera, peoia, nagusia... Etxera joan aurretik tartetxo hori hartzentz duzue. Denetatik egiten duzue berba, batzuetan kristorenak ere esaten dizkioz elkarri, baina giro onean; etxeratu orduko guztia ahaztuta dago. Belgikan ez dago halakorik. Han lanetik irteten gara 17:00etan eta zuzenean etxera joaten gara hurrengo egunean berriaz lanera joateko.

Elkartea gastronomikoak ere asko gustatzen zaizkit. Giro handia dago; beste bizikidetza modu bat da. Eta gastronomia, zer esanik ez! Izugarri ona da.

Sanmartinetara urtero etorri izan zara.

Bai, 1958tik urtero etorri izan naiz. Pazkoetan ere etorri izan naiz, azken 10-12 urteetan.

Sanmartingo danborradan ere parte hartu izan duzu. Aurten ere irtetekoak zinela uste nuen.

Ez naiz irten. Egia esan, itxaron nahi dut erretiratuta egon



Zus Bernaerts, udaletxeko balkoian.

JOSETXO ARANTZABAL

arte San Joxepe elkartekoekin danborra jotzen irteteko.

Aurretik irten izan naiz Umore Ona elkartarekin, baina banderadun.

Gainera, aurtengoan emozio gehiegi izango ziren.

Izan ere, ohorezko anaidi izendatu zaituzte Erreileno eta Tostoen Kofradien.

Oso-oso pozik nago. Aurreko gaeuan ezin lorik egin egon nintzen, kirioak dantzaz nitzuela. Baina gero, oso egun polita pasa nuen; guztia egon zen ondo. Udaletxeen egindako ekitaldia ere oso polita izan zen. Gainera, oso ondo lagunduta egon nintzen, ohorezko anai-di izendatu zitzuten beste kideak kultura munduko puntako ordezkarriak dira-eta.

Malkoek ihes egiten zidaten ekitaldian.

Bergarako enbaxadore Anberesen. Hala zarela esan zuten.

Eta aukera hau aprobatxatu nahi dut herri guztiari esateko Anberesen zain naukazuela ordezkarri gisa harrera egiteko.

Bergaran egiten duzuna ezagutzen dugu, baina gutxiago Anberesen egiten duzuna.

Beti jardun izan dut alor turistikoan, eta orain ere horretan dihardut. Enpresek kongresuera joateko behar izaten duten azpiegitura guztia antolatzeaz arduratzen naiz; baita langileen-dako pizgarri gisa erabiltzen diren bidaiaik antolatzeko.

Zuri ere egokitzen zaizu bidaia-tzea.

Bai, mundu erdian barrena ibiltzen naiz. Bost hizkuntza dakizkit eta oso baliagarria da hori bidaiatzeko eta nik uste dut, neurri baten, Bergarari zor dioda hori: txikitan hona etorri eta ezin komunikatzeak ematen zidan amorruari.

1944an jaiotakoak Enkarterriean

1944an jaiotako gizon-emakume koadrila batek -30 bat lagun- Enkarterrieta egin zuen txangoa euren eguna ospatzeko.

65 urte beteko dituzte aurten, eta, horrek ospakizun berezia merezi duela-eta, egun-pasa joan ziren Enkarterrieta.

Hango txokoak bisitatu eta gero, baziari ederra egin zuten eta primerako eguna igaro zutela aitortu dute.

Urte askotarako, guztioi, eta datorrena ere berdin ospa dezazuela.



GOIENKARIA

HIRIGINTZA > KONPONKETAK

Artekalea eta Arruriaga ibilgailuendako itxita, bihartik

Hilaren 30era arte egongo dira itxita, solte dauden galtzada-harriak konpontzeko

Bien bitartean, zaborra lagatzeko edukiontzia plazan eta Arreseko kantoian jarriko dituzte

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Artekalea eta Arruriaga kaleetan egitekoak diren konponketa lanak direla-eta, kale horiek ibilgailuendako itxita egongo dira irailaren 22an hasi eta urriaren 30era arte.

Hain justu ere, kaleotan solte dauden galtzada-harriak konpontzeko itxiko dute kalea. Udal arduradunek azaldu dutenez, kaleotako hainbat gunetan daude solte galtzada-harriok: "Eguraldiaren, autoen eta, oro har, erabilera eraginez askatu egiten dira harrietako batzuk, normala da, eta orain egingo duguna da solte dauden horiek ondo jarri", gehitu dute Udaleko iturrieik.

ZIRKULAZIOA DESBIDERATU
Obrek iraua bitartean, zirkulazioa San Martin plazatik Barren-



Besteak beste, erabileraren ondorioz askatu egiten dira galtzada-harriak, irudian ikusten denez.

MONIKA BELASTEGI

kalerantz bideratuko dute. Bestalde, denbora tarte horretan dauden jaiegunetan plazarako sarrera moztu egingo denez, Basarteko bizilagunak Bidekutzeta kaletik irten ahal izango dira. Era berean, Bolura joan

nahi dutenek Irizartik edo Matarreka-Zubietatik egin ahal izango dute.

ZABOR BATZEA

Zabor batzeari dagokionez, ezin izango denez Artekalea eta Arru-

riaga kaleetan kamioia sartu. Udaletik jakinarazi dute kale horietako bizilagunek San Martin plazan eta Arreseko kantoian jarriko diren zaborrontzietan utzi ahal izango dutela zaborra hilaren 30era arte.



MONIKA BELASTEGI

Taxia Ibargarai kalean hartu beharko da aurrerantzean

Dagoeneko egokitu dute taxien geltokia Ibargarai kalean eta taxilariek ere han dira dagoeneko. Taxilariek hala eskatuta orain arteko baino leku aproposagoa egokitu die Udalak: laua, geroago eta zerbitzu gehiago batzen dituena eta herriko sarreratik gertu.

Taxi geltokiak Irizar kalean libre laga duen gunean aparkalekuak egokituko dituztela aurreratu dute Udaletik; 30 inguru, eta eguraldiak lagunduz gero, datorren astean margotuko dituzteurreko marratxoak. Pareko aparkalekuak bezala, diagonalean lagako dira autoak.



JOSETXO ARANTZABAL

Argazkilarien jaso zuten saria

Egubakoitzean jaso zuten saria XIX. kirol argazkien lehiaketako irabazleek Aroztegi aretoan egindako ekitaldian. Saria jasotzen egon ziren: Julian Gil, Jose Agustin Gurrutxaga, Josu Garai, Benito Cantero, Juan Antonio Unzurrunzaga eta Jorge Murgiondo. Saria ematearekin batera, lehiaketako 44 argazkiz osatutako erakusketa ere inauguratu zuten. Lanok ikusgai egongo dira hilaren 27ra arte Aroztegin.

oharrak

UDALA

> **San Martzialen dauden mahaiak kentzeko eskatu dute**

Udaletik jakinarazi dute ugaritu egin direla San Martzialgo zelaian mahai eta antzeko altzariak –Udalak ez jarritakoak-. Hori dela eta, jakinarazi nahi die mahaiak jarri dituztenei hil bukaera arteko epea dutela kentzeko. Horrekin batera jakinarazten zaie irailaren 30erako erretiratu ez direnak bertatik kendu eta bota egingo dituela eta ez duela horregatik inolako erantzukizunik izango.

ALDERDI EGUNA

> **Alderdi Egunera joateko autobusa antolatu du EAJK**

Hilaren 27an Forondan ospatuko den Alderdi Eguna joateko autobusa antolatu dute. 09:00etan abiatuko da autobus geltokitik. Autobuserako izena emateko deitu 943 76 47 00 telefono zenbakira.

IZENEMATEA

> **Xipizaro ludotekan izenematea zabalik dago**

Izena Xipizaro ludotekan emango da, 17:00-19:00 orduetan, Agorrosin Ekintza Guneko lehenengo solairuan.

BEDELKAR

> **Bedelkar txartelarekin %5eko deskontua azorora arte**

Irail, urri eta azaroko egubakoitz eta zapatuetan egingo dute %5eko deskontua Bedelkar txartelarekin ordaindiz gero.

ETXEAK > IZENEMATEA

San Martingo etxe tasatuetako izenematea zabalik dago

Interesatuek Udaleko Hirigintza Sailean eman beharko dute izena hilaren 25a baino lehen

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

San Martin auzoko 20. zenbakian egiten diharduten 12 etxe tasatuak erosi ahal izateko izenematea zabalik dute. Interesatuek hilaren 25era arte eman dezakete izena Udaleko Hirigintza Sailean, 09:00etatik 14:00etara arte.

Etxea erosia gura dutenek urtean 21.000 eta 57.750 euro arteko diru-sarrerak egiaztatu beharko dituzte. Gainera, etxeko titular kide izango diren guztien sarre-rak hartuko dituzte kontuan, iazko errenta aitorpenaren arabera. Zozketa egiterakoan Oñatin bizi direnek lehentasuna izango dute, Oñatin erroldatua egotea derri-gorrezkoa ez den arren.

LAU KUPO

San Martingo etxe tasatuen zozketan lau kupo berezituko dituzte: mugikortasun urria duten kupoia (etxe bakarra), familia ugariena (hiru logelako bi etxe), Etxebideko zerrendan lau urte baino gehiago izena emanda dute-nena (bi etxe) eta kupo orokorra-rena (zazpi etxe).

LOGELA BAKARREKO ETXEAK

Ugarkaldeko 11. eta 12. zenbakietan dauden logela bakarreko babes ofizialeko etxeetarako izenematea zabalik dute. Zozketa berezia egingo dute eta etxe barik geratzen direnek kupo orokorreko zozketan parte hartuko dute.



San Martingo etxe tasatuak egiten dihardute.

GOENKARIA

Tasatutako etxeen azalera eta prezioak

ATEA	ETXEBIZITZA		GARAJEA	TRASTELEKUA		PREZIOA
	M2 ERAB.	PREZIOA		M2	PREZIOA	GUZTIRA
1-A	83,85	213.060	17.248	12,08	7.213	237.522
1-B	84,68	215.169	17.248	12,88	7.690	240.108
1-C	84,90	215.728	17.248	12,05	7.195	240.172
1-D	83,85	213.060	17.248	12,00	7.165	237.474
2-A	83,85	213.060	17.248	12,11	7.231	237.540
2-B	84,68	215.169	17.248	13,23	7.899	240.317
2-C	84,90	215.728	17.248	12,02	7.177	240.154
2-D	83,85	213.060	17.248	12,96	7.738	238.047
3-A	83,89	213.161	17.248	12,65	7.553	237.964
3-B	84,67	215.143	17.248	12,97	7.744	240.137
3-C	77,89	197.916	17.248	12,07	7.207	222.372
3-D*	78,83	200.304	17.248	12,72	7.595	225.148

*Elbarriendako egokitutako etxea.

ITURRIA: OÑATIKO UDALA



Argazkian, iazko Herri Eguneo bazkaria. 1.000 lagun batu ziren kirolegiko kantxa berdean.

oharrak

ZERBITZUAK

> Kirolegiko sauna eta gimnasioa itxita daude gaurtik

Zubikoa kirolegiko saunen eta gimnasioan hainbat lan egin behar dutenez, bi zerbitzuak itxita daude gaurtik. Gimnasioan margotze lanak egingo dituzte eta itxita egongo da domekara arte. Saunen, berriz, eraberritze lanak egingo dituzte eta itxita egongo da urriaren 6ra arte.

Matrikulazioa

> Gaur da azken eguna euskaltegian izena emateko

Izenematea bulegoan, 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 18:30era, euskaltegia@oinati.net helbidean edo 943 78 24 96 telefona oso egin dezakete interesatuek.

Matrikulazioa

> Izenematea zabalik Txiki Txoko haurreskolan

2008an eta 2009an jaiotako haurrendako izenematea zabalik dute Txiki Txokon. Izena emateko edo informazioa eskatzeko haurreskolatik pasa dai-teke eskola orduetan: 09:00etatik 13:00etara arte.

Matrikulazioa

> Futboleta pilotako izenematea zabalik

Aloña Mendiko eskoletan izena emateko epea zabalik dago

egubakoitzera arte kirolegiko sarreran. Pilotako eskolak Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5, eta 6. mailetako neska-mutikoen dira. Futboleko eskolak, aldiz, Lehen Hezkuntzako 3, 4, eta 5. mailetakoendako dira; biak ala biak urrian hasiko dituzte.

Ikastaroak

> Umeendako yoga ikastaroa egingo dute urrian

Sanatana Dharma yoga eskolak umeendako ikastaroa egingo du urrian. Abendura arte emango dituzte eskolak martitzenetan eta egunetan, 17:00etatik 18:00etara arte. Interesatuek 943 78 30 60 edo 658 71 90 89 telefonora dei dezakete izena emateko.

Entsegua

> Danborrada nagusirako azken entsegua

Dantzariek gaur, eguztenean eta egunean entseautuko dute eta danbor-joleek bihar eta egunean. Entsegua guztiak Errekaldeko lokalean egingo dituzte 20:00etatik 21:00etara.

Hitzaldia

> Ferrocarril Vasco-Navarroren gainezko hitzaldia

Javier Susok, egubakoitzean, hilaren 25ean, egingo du berba Ferrocarril Vasco-Navarroren gainean, kultura etxean, 19:00etan.

JAIAK > HERRI BAZKARIA

Herri Eguneo bazkarirako 1.000 txartel jarri dituzte salgai

Txartelak gaurtik eros daitezke Izarraitz, Arrano, Guria, Anton, Umerez eta Olakua tabernetan

M.B. > OÑATI

Urriaren 3an ospatuko dute Herri Eguna eta kirolegian herri bazkaria egingo dute. Bada, gaurtik aurrera eros daitezke txartelak ohiko saltokietan. Hain zuen ere, Izarraitz, Arrano, Guria, Anton, Umerez eta Olakua tabernetan. Bazkarirako txartelak 18 eurotan salduko dituzte. 1.000 txartel jarriko dituzte salgai.

HERRI BAZKARIKO MENUA

Kirolegiko kantxa berdean egindo duten bazkarirako menua zehaztuta dute; hain justu ere: patatak errioxar erara, arkumea txilindron erara, hostopil tarta ananarekin (piña), kafea eta kopa. 14:30ean hasiko dute.

Bestalde, Herri Egunerako egitaraua gertu dute: 10:30ean, Unibertsitate etorbidean asko-

tariko animalien erakusketa eta lehiaketak egingo dituzte. Gainera, gazta lehiaketa eta lore, lantxare eta artisau erakusketak egingo dituzte.

Eguerdi aldera sagardo das-tatzea egingo dute plazan. Guztila, 24 sagardotegik hartuko dute parte. 18:00ean herri kirol jaialdia egingo dute plazan. 19:30ean Salbea abestuko dute parrokiak Oñati abesbatzak eta parrokiako koruak. Bestalde, Herri Eguneko musika doinuak Amairu taldeak jarriko ditu.

Matrikulazioa

> Futboleta pilotako izenematea zabalik

Aloña Mendiko eskoletan izena emateko epea zabalik dago

ESKORIATZA > OSASUNA

Emozioak gobernatze mintegia antolatu dute

Gaurtik urriaren 2ra arte egongo da tailerrean
izena emateko aukera, herriko kultura etxeen

Guztira, mintegia bi orduko 10 saiokoa izango da,
eguenetan, 18:00etatik 20:00etara

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak bakoitzaren
emozioak ezagutu, ulertu eta
gobernatzekeko mintegia antolatu
du, Pepa Bojó psikologoaren esku-
tik. Guztira, bi orduko 10 saio
izango dira, eguenetan, 18:00eta-
tik 20:00etara, kultura etxeen.

*Gure emozioak nola gobernatu
izeneko tailerraren lehenengo
saioa urriaren 8an egingo dute.*

Izena emateko epea gaur,
astelehena, zabalduko da; urri-
aren 2ra arte egongo da apunta-
tzekeko aukera, kultura etxeen.
Horretarako matrikulak 58 euro
balio du. Udaletik jakinarazi
dugite mintegia aurrera atera
ahal izateko, gutxienez, 20 lagunek
eman beharko dutela izena
horretan.

TAILERRAREN HELBURUA

Emozioak ezagutu, ulertu eta
gobernatzearen beharra oinarriz-
tat hartuta, tailerraren helbu-
ru nagusia izango da ondo sen-
titzekeo beharrezko oreka lortzea
eta harreman lotura sanoak, ber-
dintasunezkoak, atseginak eta
tratu onekoak lantzko modua
izatea.

Hain zuzen, batetik, genero-
aren eraginez ikasitako emozio
estiloak agerian jarriko dute
esandako mintegian parte har-
tzen dutenek. Aldi berean, nor-
beraren emozioak hobeto ezagu-
tzea eta enpatia garatzen ikasi-
ko dute.

Bestetik, bakoitzaren emozio-
ak egokitzen eta bideratzentz-
en eta emozio positiboak sortzeko



Pepa Bojó psikologoak zuzenduko du tailerra.

GOIENKARIA

trebetasuna garatzen erakutsi-
ko die Pepa Bojó psikologoak.
Gozatzen ikastea eta berdintasune-
zko eta tratu oneko harremak
sustatzen ere ikasiko dute
saioetan.

Edukiei dagokionez, bakoitzaren
bizitzan jasotako ikaskun-
ta aztertuko da, bakoitzaren zail-

tasunak eta beldurak ezagutu-
ko dira eta horiek nola goberna-
tu esperimentatuko da.

ABENDUAREN 10ERA ARTE

Esan bezala, lehenengo saioa-
ren hitzordua urriaren 8an jarri-
ta dago. Gainontzeako urriaren
15ean, 22an eta 29an; azaroaren

5ean, 12an, 19an eta 26an; eta
abenduaren 3an eta 10ean izan-
go dira.

*Gure emozioak nola gobernatu
izeneko mintegiaren gaineko infor-
mazio gehiago gura dutenek 943
71 46 88 telefono zenbakira dei
dezakete edo kultura etxera zuze-
nean joan.*

Aretxabaletak Garaion Naturartekoak hartu ditu

Garaion Naturarteak elkartekoak
Aretxabaletan izan ziren joan den
astean, gaztetxoendako prestatu-
tako *Natur ibilbide artistikoa*
izeneko ekimena egiten. Kurtzeba-
rrí eskolakoekin elkarlanean egin
zuten egitasmo hori. Ondoko
irudian ikusten denez, besteak
beste, antzerkitxoak eta esketxak
egin zituzten Herriko plazan;
video kamara batekin egindakoa
grabatzeaz ere arduratu ziren.
Astelehenean hasi eta egubako-
tzera arte iraun zuten ekintzak.

Garaion Naturarte euskalgin-
tzan eta aisiaaldi alorretan ibilitako
debagoiendarrez osatutako
elkartea da. Honakoak dira bere
ildoak nagusiak: sorkuntza, natura
eta ondarea (bertakotasuna).



MIRARI ALTUBE

oharrak

ERLIJOIA

> **Katekesiari hasiera emateko bilerak daude asteon**

Leintz Pastoral Barrutiak
katekesiari hasiera emateko
bilerak antolatu ditu datozen
egunotan Aretxabaletako
parrokiako lokaletan: egunean, hilak 24, 3. mailako
haurren gurasoekin; eta
egubakoitzean, hilak 25, 2. mailakoekin. Bilerak
18:00etan izango dira.

IKASTAROA

> **Okila elkartekoak 60 orduko
taila ikastaraoa antolatu du**

Aretxabaletako Okila tai-
la elkartekoak hasiera mailako
taila ikastaraoa antolatu du
datozen hilabeteotan. Eskolak
urriaren 5ean hasiko dira eta
18:00etatik 20:00etara bitarte-
ean egingo dira. Guztira, 60
orduko ikastaraoa izango da.
Interesa dutenek ahalik eta
azkarren eman behar dute
izena honako tokietan: Are-
txabaletako udaletxeen, kul-
tura etxeen edo Okilaren tai-
errean.



Aurreko astean hasi ditu eskolak musika gela berrian Lorea Larrañagak.

ARAMAIO > KIROLA

Aitor Aranaren omenezko ibilaldia, irailaren 26an

Orixol Mendi Elkarteak antolatuta aurten ere mendi ibilaldia egingo dute Aranaren omenez; 08:00etan irtengo dira kiroldigitik


ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Aitor Arana herrikidearen omenezko ibilaldia tradizio bilakatu da Aramaion. Urteetan aurrera doan tradizioa da; aurtengoa hamahirugarren edizioa izango da. Datorren zapatuan, irailak 26, egingo dute mendi ibilaldia.

Antolatzaleek azaldu dute sei eta zortzi ordu bitarteko mendi ibilaldia izango dela aurtengoa. Irteera 08:00etan egingo dute urtero moduan Aramaioko kiroldegian. Handik, Azkoagatik barrena, San Asensiore (680m) joango dira;

Orixoleko tontorra (1.132m) izango da egingo duten bigarren gailurra. Ondoren Izpistera (1.046m) joango dira; Kasatxo eta Larrabietik pasatu ondoren Tellamendiko (836m) gaina hartuko dute eta hortik Ibarra joango dira berriro ere.

Mendi martxan parte hartu nahi duten guztiak kiroldegian egon beharko dira irteera baino ordu erdi lehenago, 07:30ean hain justu ere. Bertan eman beharko dute izena eta zortzi euro ordaindu beharko dituzte.



Aitor Aranaren omenezko mendi martxaren ibilbidea.

ORIXOL M.E.

LEINTZ GATZAGA > LANAK

Bukatuta baserrietarako bide sarreren konponketak

Arrate eta Asteisolo baserrietarako sarrerak asfaltatuta, bukatu dituzte lanok

Goikora doana egokitzen zuten eta Arrate baserrira doana hirugarren, harrizko horma eginda. Azken lana eta luzearna, Asteisolo baserrira doana izan da. Hemen ere lur zati bat kendu eta horma egokitzen dute. Dagoeneko bota dute asfaltoa eta lanok bukatutzen eman daitzeke; hala ere, ateratako lur guztia -gas tangen inguruan pilatuta- jaso eta eroan egin behar dute.

Konponketen helburua izanda bide sarrera horietan ikuspena hobetzea eta auto gidariekin segurtasun handiagoarekin egitea sartu-irtenak.

LAU BIDE SARRERA

Landagipuzkoa 32 egitasmoko dirulaguntzari esker egin dituztelanok. Lehenengo Gatzagain inguruko irteera hasi ziren egokitzen, ikuspen gutxi zegoelako; horretarako lurra kendu zuten ertzetatik. Gero Olaun

Herriko bide sarrerak egokitza ere gura du Udalak eta horren berri abutztua aurretik emana dauka Aldundian. Oraindik ez dute jaso inolako erantzunik.

ELGETA > HEZKUNTZA

Kultura etxera eraman dute musika gela

Adolfo Jainagak herri ikastetxeen jarraituko du trikiti eta pandero saioekin; 19 urte beteko ditu aurten Elgetan eskolak ematen

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Herri ikastetxeen ematen zituen orain arte piano eta gitarra eskolak Lorea Larrañagak. Eskolaz kanpoko saioak ziren, eta ikasturte honetatik aurrera kultura etxean emango ditu. "Oso pozik nago leku aldaketarekin", esan du Larrañagak. "Arazoak sortzen ziren eskolako atea dela eta ez dela, eta orain, gainera, eguerdian ere eskolak emateko aukera dut".

Kultura etxeko lehenengo solairuan, iaz ludotekak harzen zuen gelan emango ditu aurten eskolak Larrañagak. Udalaren eta guraso talde baten laguntzarekin egin du leku alda-

keta. "Deialdia egin eta bost bat boluntario elkartu ginen auzolanean gela garbitu, txukundu, margotu eta musika eskolak emateko egokitzeko", adierazi du Kultura zinegotzi Rebeka Uberak.

Iñigo Azkarraga, Mari Carmen Egiguren, Jose Mari Zubiaurre, Mireia Berriozabal, Lorea Larrañaga eta Rebeka Ubera aritu dira gela auzolanean txukuntzen. "Nire ustez, nabarmentzekoa da herritar horiek auzolanean egindako lana", esan du Uberak. Badira sei urte Larrañagak Elgetan musika eskolak ematen dituena. "Aurretik ere ibilitakoa nintzen

herrian eskolak ematen, baina eskola partikularrak ematen sei bat urte izango dira". Aurten 23 ikasle izango diru.

JAINAGAREN TRIKITI ESKOLAK

Trikiti edo panderoa ikasi nahi dutenek, berriz, aukeran dituzte Adolfo Jainagaren eskolak. Jainaga ez da berria Elgetan, ikasturte honetan 19 urte beteko ditu herrian eskolak ematen. Herri ikastetxeen jarraituko du hark. "Aurreko astean hasi ginan. Oraingo, dozena erdi ikaslekin hasi dut ikasturtea Elgetan, baina badaude gehiago. Kanpoan ikasten hasi direnak. Ordutegiak adostu behar ditugu".

ANTZUOLA > JENDARTEA

Antzuola Aiherrarekin senidetu zeneko 25. urteurrena ospatuko dute urriaren 11n

Nafarroa Behereko Aiherra herriko ordezkariak Antzuolara etorriko dira eta, besteak beste, bazkaria izango da

tze horren mende laurdena ospatzeko hainbat ekitaldi izango dira urriaren 11n. Hala ere, lehenago eta hala ere, egun honen aurreketa baita ondoren ere ekitaldi gehiago egingo dituzte.

Senidetzearen aitzakian irailaren 28an elkartuko dira 25 urte hauetan barrena alkate izan direnak eta senidetzearen eta urteurrenen gaineko aurkezpena egingo dute Donostian, Koldo Mitxelena kulturunean.

Egin ostean, hamaiketakoa izango da. Txistulariekin kalejiran joango dira plazara gero, eta han Aiherrako eta Antzuolako alkateek hartuko dute hitza. Trikipoteara egingo dute ondoren, plazan behera joanda; eta eguna borobiltseko bazkaria eta kantu saioa egingo dituzte pilotalekuaren.

GAUBEILA AIHERRAN

Hala ere, ekitaldiek datorren urteko maiatzena arte iraungo dute. Asmoa da bi herrietan egiten diren ekintzetan antzuolarrek eta Aiherrakoek parte hartzea. Esaterako, azaroan gaubeila egingo dute Aiherran eta Antzuolako ordezkarien bat izango da han.

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Antzuola eta Nafarroa Behereko Aiherra herria senidetu zirela 25 urte beteko dira aurten. Aiherrako Beltzuntze elkarteko zenbait lagunek eta antzuolar batzuek elkar ezagutu ondoren sortutako harremanetik etorri zen senide-

IRRIAREN 11N OSPAKIZUNAK
Irailean aurkezpena egin eta urriaren 11rako utziko dituzte ospakizun nagusiak. Egun horretan Aiherrakoei Antiguau harrera

Kirola



> **VILARIÑO ONENA**
Aramaioko rallysprintean
Ander Vilariñok ez zuen
kontrariorik izan > **22-23**



> **UDA 2, AMOREBIETA 1**
Aretxabaletako mutilek
oso partidu serioa egin
zuten atzo > **24**



> **RAMON DOMENE**
Bergaran erabaki zen atzo
Lehendakari txapelketako
irabazlea > **25**

MOTO-KROSA > BERGARA HIRIA, EUSKADIKO OPENA

Lokatza dela-eta, lasterketa ez zen uste bezain ikusgarria izan

KORRITZEARI UKO

Izena emandako pilotu
asko ez ziren
lasterketara joan

ZUGAITZ SALEGI

Bergararra bigarren
geratu zen Mx-1
kategorian

TXOMIN MADINA > BERGARA

Zapatu goizera arte, zalantzan
egon zen Bergara Hiria moto-
kros lasterketa egin ala ez, bai-
na azkenean, Euskadiko Txapel-
ketaren barruko probarekin
aurrera jarraitza erabaki zuten.

"75 pilotu inguru zeuden ize-
na emanda, beste inon baino
gehiago. Bainaz azkenean, egua-
raldi iragarpeneren eta alerta
horiaren ondorioz, erdia inguru
atzera bota dira", adierazi zuen
lasterketa amaitutakoan Asier
Blazquez, Bergara Hiria moto-
kros txapelketako antolatzailee-
tako batek. "Ikusle aldetik, nahi-
ko jende gerturatu da, baina loka-
tzak ikusgarritasuna kendu dio
lasterketari", gaineratu zuen.

FABORITOAK, KANPORATUAK

Mx-1 kategorian, kategoria nagu-
sian, zortzi pilotu lehiatu ziren.
Bigarren txandan Oscar Diaz eta
Rogers Carrasco, lasterketan buru
zeudenak eta Euskadiko Txapel-
keta irabazteko faboritoak, kan-
poratu egin zituzten. Azkenean,
Jokin Barandiaranendako izan
zen garaipena, eta Zugaitz Salegi
bergararra bigarren sailkatzen.

Mx-2 kategorian, bestalde,
Aingeru Gonzalez izan zen nagusi;
eta hirugarren, Xabier Aba-
solo arrasatearra geratu zen.

ABENDURA BITARTEAN, GEHIAGO

Zapatan ikuskizun gosez gera-
tu zirenek, abendua baino lehen
izan dezakete berau asetzeko
aukera, antolatzaileek aurrera-
tu zutenez, posible baita Berga-
ran beste bi txapelketa jokatzea.



Eguraldiaren ondorioz, pilotu asko atzera bota ziren, eta parte-hartu zutenek, guztiz lokatzuta amaitu zuten.

JOSETXO ARANTZABAL

AUTO LASTERKETAK > ARAMAIOKO 8. RALLYSPRINTA

Subarua behin probatzea nahikoa zuen Vilariñok Aramaion nagusitz

Lasterketaren bigarren txandan euria hasi zen, eta horrek zaidu egin zuen pilotuen lana

Aramaioko tramua ederra da rallysprinterako, baina zapatuan oso labainkor zegoen errepidea

XABIER URTZELAI > ARAMAIO
Ander eta Angela Vilariño izan ziren zapatuan Aramaion azkarenak, orain arte Apalantzak

gidatzen zuen Subaru Impreza WRC-a benetan azkarra dela era-kutsita. "Ez nuen horren ondo ibiltzea espero, baina auto hori

oso erraz gidatzen da. Maldan gora ondo ibili naiz, ohituago nago, baina aldapa behera gozatu egin dut autoak irrist zelan egiten zuela nabarituta", adierazi zuen lasterketa amaieran Ander Vilariñok.

Norbaitek esango du Vilariñotarrek beste askok baino balibide gehiago dituztela puntako materialarekin lehiatzeko, baina gero gidatu egin behar da, ondo eta azkar. Eta zapatuan Aramaio-

ko tramua ez zegoen azkar ibiltseko. Errepidea lehor hasieran, euria langarra gero, eta bigarren manga erdian errepidea labainkor utzi zuen zaparrada bota zuen. Labainkor eta arriskutsu, batez ere Arriola auzotik aurrera. Hain zuzen, Arriolan egon zen arratsaldeko lehenengo kolpea –denak arinak izan ziren–. Aingeru Castrok (BMW M3) minutu pasatxo baino ez zuen egin autoa gidatzen, Arriolako auzora iris-

tean autoaren atzealdearekin talka egin zuelako hormaren kontra, eta harendako hor amaitu zen lasterketa.

KONTRARIO BARIK

Vilariñori Jose Labakak (Mitsubishi Evo) baino ez zion aurre egin, eta lehenengo mangan baino ez. Hor, Labakak bi segundu gehiago behar izan zituen tramua egiteko. Vilariñok autoa *estreinatu* zuen manga horretan, eta neu-



Ikusle koadrila bat, Arriola auzora iritsi baino kilometro bat lehenago, bide bazterrean, Citroen Saxoko pilotua animatzen.

XABIER URTZELAI



"Arrebarekin erresistentzia probetan ibili naiz, baina gaurkoa berezia izan da"

X.U. > ARAMAIO

Europako mendiko txapelketa irabazi duen formula autoa alde batera utzi eta Subaru hartuta, Ander Vilariñok lehenengo rallysprinta egin zuen zapatuan Aramaion. Auto modalitate berria estreinatzeko, zer eta garaipena.

Lehenengo lasterketa egin eta irabazi, ez da hasteko modu txarra.

Oso pozik geratu gara. Egia da autoa oso erraz gidatzen dela; atzo probatu nuen lehenengoz Olaberrian

dugun zirkuituan, eta onartu behar dut hasieran azkar gidatzea zailagoa izango zela pentsatu nuela. Baina orduko sentsazio onak izan ditut gaur ere. Dena dela, egun oso korapilotusa izan da guztiandako, hasieran lehor, ondoren euria... gurpilakaldatzen ibili behar izan dugu.

Gainera, berezia izango zen arrebarekin batera lehiatzea. Lehengo aldia izan da?

Horrelako auto baten barruan, bai, baina egia da lehenago ere erre-

Ander Vilariño > Pilotua

sistentziako probetan ibili izan garela batera. Baina inoiz ez da ibili rallysprint batean kopilotu lanetan oharrak ematen, eta oso ondo egin du lan hori.

Gustatu zaizu Aramaioko rallysprinteko tramua?

Bai, asko. Hasierako zatia oso erraz egiten zen, azkar, baina tramuan zehar asfalto mota ezberdinak daude, eta kontuz ibiltzea komeni zen. Gero, goitik beherako zatia zen niretako zailena, autoa askomugitzen zelako, baina sentsazio politak izan dira,

autoa batetik bestera zelan joaten zen igartzea. Lasterketa irabazi egin dugu, hortan, lana ondo egin dugun seinalde da hori.

Pena, datorren astean ez zaitugula-ko Udanako igoeran ikusiko.

Bai, gustura hartuko nuke parte, baina kanpora joan behar dut Espainiako Txapelketako lasterketa dudalako. Gernikako rallyan parte harteko asmoa dut, baina aurrerago ere egongo da hemengo lasterketetan parte hartzeko astia.

izan eko

rria berehala hartuta, hurrengo bi txandetan ez zen kolorerik izan, 10 segundoko aldea atera zion-eta txanda bakoitzean Labakari.

Atzerago, pilotu bakoitzak bere lehian murgilduta, etxeko ordez-kariak moduan. Inhar Amenabarrek (R5 GT Turbo) onartu zuen errepidea ez zegoela bromatara-ko: "Bigarren txandarako busti-ko gurpilak jarri dizkiogu auto-ari, eta errepidea zelan zegoen ikusita, normala da hanka azeleragailutik jasotzea, ez dagoela-ko arriskatzeko horrenbesteko tarterik".

Igor Orobengoak (Seat Ibiza GT TDI) hirugarren txandan gozatu zuen gehien: "Lehenengoan turbo barik ibili gara eta bigarrenean ez dugu gurpilekin asmatu. Eta bai, hirugarrenean goza-tu dugu gehien".

JENDE DEZENTE

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, Aramaiora gerturatutako jende kopurua azpimarratzeko izan zen. Asko Gantzagako kurba itxian egon ziren, baina gutxi animatu ziren esku frenoari tira egin eta ikuskizuna ematera.

Datorren astean Udanako igoerak hartuko du erreleboa, baina hor ez da Aramaioko pilotua lehiatuko. Orobengoa irteera puntuatua izango da, eta baita orain dela hiru hilabete Gorlako igorran izan ziren ibarreko pilotu asko ere, tartean etxeko hitzordua iristeko deseatzen dauden Ruben Nogueiras, Aitor Ramirez eta David Ardions –baliteke azken orduan beste oñatiarren bat animatzea–.

FABORITO, ZABAleta

Udanako igoerarako –Euskadiko mendi igoerarako puntuagarria– faboritoa, baina Aitor Zabaleta da (Lola BMW). Orain arte egin dituzten Udanako hiru igoeratan Bergarakoak agindu du. Zapatuan, baina rallysprintean ikusle moduan zegoen Ruben Nogueirasek (Silver Car) aitorutz zigun Zabaleta estutzeko asmoz lehia-tuko dela. Udanako errepidean marra bakoitzak non dagoen bada-ki, dagoeneko, Oñatiakoak.

ESANAK

"Errepidea bustita arriskatzen ibiltzeko tarte txikitu egiten da, eta normala da hanka azeleragailutik apur bat altxatzea"

Inhar Amenabar > Pilotua



Lasterketa hasi aurreko unean, pilotuak azken orduko prestaketa egiten.

x.u.



Gantzagako auzora doan bidegurutzeko kurban batu ziren ikusle gehienak.

x.u.



Ander eta Angela Vilariño, kopak jasota, sari banaketan unean.

x.u.



Igor Orobengoa

Arrasate

Inhar Amenabar eta Agurtzane Zubietza

Aramaio

"Gaur kopilotu berriarekin ibili naiz, Javier Goikoetxea nafarrarekin, eta oso ondo egin du bere lana. Ez zen auto barruan gozatzeko egun onena, baina errepikatzeko gogo geratua da. Ea Udanen hobeto ibiltzen garen".

"Euria egin digun arren, ondo ibili gara. Lasterketa, behintzat, osorik amaitu dugu eta hori da gauza garrantzitsuena. Lehenengo txandan errepidea lehor zegoen, baina zirimiria hasi da ondoren eta gauzak zaildu egin dira. Lokatz dezente zegoen bide bazterretan, baita harri txikiak ere; gero, goialdean errepidea nahiko gastatuta dago eta kontuz ibili beharreko tarte da hori. Proba amaituta, ospatu egin beharko dugu orain".

sailkapena

1.-Ander Vilariño	00:12:58
2.-Jose Labaka	00:13:18
3.-Ruben Garcia	00:13:46
4.-Iban Tarsicio	00:13:47
5.-Iñigo Olabegeorge	00:13:48
6.-Josetxo Zapiain	03:13:54
7.-Gorka Antxustegi	00:13:57
8.-Gorka Ezennarro	00:13:57
9.-Xabier Alustiza	00:13:57
10.-Joseba Zapirain	00:13:57
11.-Rafa Ateka	00:14:04
12.-Eneko Zelaieta	00:14:06
13.-Iker Gayoso	00:14:09
14.-Adur Alberdi	00:14:10
15.-Jesus Perez	00:14:10
16.-Inhar Amenabar (Ara.)	00:14:25
17.-Markos Landa	00:14:26
18.-Andoni Aierbe	00:14:29
19.-Iñaki Cancelo	00:14:39
20.-Joseba A. Munitx.	00:14:41
21.-Jon Arregi	00:14:42
22.-Ander Barainka	00:14:43
23.-Xabier Gurrutxaga	00:14:55
24.-Gaizka Lopez	00:14:58
25.-Urtzi Oteiza	00:14:59
26.-Ander Txakartegi	00:15:00
27.-Alberto Cadelo	00:15:01
28.-Peru Urkidi	00:15:03
29.-Iñaki Sarasola	00:15:09
30.-Rafa Diaz	00:15:09
31.-Igor Orobengoa	00:15:10
32.-Alejandro Zabalegi	00:15:13
33.-Josetxo Gueruzaga	00:15:30
34.-David Hernandez	00:15:43
35.-Egoi Mugerza	00:15:48
36.-Ugaitz Basaras	00:15:53
37.-Lander Badiola	00:16:07
38.-Xabier Agirre	00:16:11
39.-Iker Castro	00:16:14
40.-Joseba Ibarra	00:16:20
41.-Jesus de la Fuente	00:16:51
42.-Asier Larrañaga	00:16:54
43.-Mikel Cano	00:39:41
44.-Iban Etxaniz	Erretiratua
45.-Jokin Aiertza	Erretiratuta
46.-Aitor Urkidi	Erretiratuta

DATUA

20
SEGUNDO

Hiru txandetan egindako denborak batuta, bigarren sailkatutako Jose Labakak Vilariñok baino 20 segundo gehiago behar izan zituen.

7

PILOTUK BERTAN BEHERA

Zazpi pilotuk ezin izan zuten lasterketa amaitu, kolperen bat hartu zutelako edo arazo mekanikoak izan zituztelako.

93,6
KILOMETRO ORDUKO

Bataz beste, Ander Vilariñok 93,6 kilometro orduko abiadurarekin egin zituen Aramaioko rallysprinteko hiru tramuak; egin zuen denbora onena, 4:13:14 minutu.

FUTBOLA > HIRUGARREN MAILA

Jokaldi bakoitzak borrokatuta lortu zuen UDAk garaipena

Gordobilen mutilek txalotzeko moduko lana egin zuten aurrez faborito zen Amorebietaren aurrean

Gotzonek eta Rubenek ondo eutsi zioten taldeari; erasoan Imanolek egin zuen min gehien

ARETXABAleta

2-1

AMOREBIETA

Aretxabaleta > Gaizka, Raul, Amutxastegi, Iturbe, Kerman (Astola, 71. min), Gotzon, Alaitz (Igartua, 80. min), Ruben, Borja, Imanol, Irastorta (Orueta, 62. min).

Amorebieta > Xabier, Iñaki, Muijika, Zigor, Sanchez, Orbegozo, Fernandez (Imaz, 65. min), Santamaria, Garcia, Gurtubai (Martin Peña, 81. min), Alex (Bilbao, 70. min).

Epaileak > Jon Etxarri epaile lanetan, eta Casanova eta Anduaga marrazain lanetan. Lan txukuna egin zuten.

XABIER URTZELAI > ARETXABAleta

Intentsitatea. Berba horrek eman zien Aretxabaletako mutilei atzo garaipena. Jokoari dagokionez UDAk oraindik detaile mordoa izango ditu zuzentzeko, baina zelaian izan behar duten jarre-rari dagokionez, Gordobilek eta Arenazak pozik egon behar dute

derrigor, aretxabaletarrek parti-du serioa egin zutelako: atzoko lerroa ondo zainduz, kontrarioa gainean presionatuz eta kontzen-tratuta, oso kontzentratuta.

HASIERAN, ATZETIK

Amorebieta talde indartsua aurreikusten zen, aurrekontu handiz egindako hamaikakoarekin, baina UDA gehiago izan zen. Eta hori, etxekoek markagailua kontran izan zutela. Amorebie-tak 10 minutu behar izan zituen lehenengo gol aukera egiteko: Zelai erditik sakoneko pasea egin eta Iturbe ez zen iritsi baloia mozteria. Amorebietako Orbegozok pasea jaso, eta jaurti beharrean izkin egin zuen; gainera bota zitzazkion UDAko atzelariak, baina tarteak aurkitu zuen taldekearei pasea eman eta honek *Kika* gainditzeke (0-1).

Lehenengo kolpe horretatik lehenbailehen errekuperatzeko, Gordobilek behin eta berriro agindu zien bere mutilei atzoko lerroa aurreratzeko. Amorebie-

taren jokaldi arriskutsuenak 23 zenbakidun Alexen ezker hanka onari esker etorri ziren. Horietako jaurtiketa bat ondo desbide-ratu zuen Aretxabaletako atezainak, baita 26. minutuan area barruko jaurtiketa bat ere. Baina, atzoko partiduan jokalari bat nabarmendu zen besteen gaine-tik: Imanol Rodriguez.

GOLAK, PENALTIZ

Imanol Rodriguezek urrea lortu zuen area barrura sartu zen bi jokalditan. Lehenengoan, Amorebietako atezain Magunegik garesti ordaindu zuen larregiko konfiantza. Baloia hasieratik urrundu beharrean babestera joan zen, eta konturatzen zenerako Imanolek lapurtua zion baloia. Penalti eginda geratu zuen Aretxabaletakoa, eta zaleek txartel gorria eskatu bazuten ere, Etxarri jaunak ondo erakutsi zion horia.

Imanolek hartu zuen penaltia jauntitzeko ardura -Tolosako penalti erabakigarrian egin zuen moduan-, eta erabat despistatu zuen atezaina (1-1). Atsedernaldira joan baino lehenago, aurreko protagonista ahalegin-du zen atezaina ezustean harrapatzen; 35 metro ingurutik egin zuen jaurtiketa, ondo botatako, baina atezainak ondo igarri zion intentzioa.



Irastorta Amorebietako atezainari baloia laburtzeko ahaleginean; UDAk eguztenean Realaren

BIGARRENEAN ERE ONDO

Bigarren zatian, 58. minutuan Borjak aukera polita izan zuen atezainaren aurrean bakarrik geratzeko. *Kika*-k eman zion pase ederra, baloi bat urrunzera area kanporaino irtenda, baina hor

motel ibili zen Aretxabaletako 9 zenbakidun jokalari abila.

70. minutuan albiste txarrak UDArendako, Kermanek min hartu zuen-eta baloia lurretik urrunzten saiatu zenean. 31. minutuan izan zuen Borjak bes-

FUTBOLA > OHOREZKO ERREGIONALA

Mondra lehenengo goleko despistea gainditu ezinka

2-1ekoarekin Mondrak berdin-keta egiteko aukerak izan zituen, baina ez zuen asmatu

MONDRA

1-3

PASAJES

X.U. > ARRASATE

Ohorezko erregional mailan jardunaldi negargarria izan da ibarreko taldeendako, hirurek galdu egin dute-eta. Lehenengo kolpea, baina, Mondrak hartu zuen zapatu arratsaldean etxearen. Pasajesek baiez-tatu zuen aurten aurre-

an ibiltzeko taldea dutela, oso ondo indartu direla, eta Mondrak, bestalde, kontrarioei erraztasunak ematen jarraitzen du.

Pasajesen lehenengo gola urrunetik egindako jaurtiketa baten ondorioz etorri zen, zelai erdia baino atzeragotik. Falta bat azkar atera, Mondrako jokalariak ezustean harrapatu eta Ander atezaina taldekearei batagiindu ematen harrapatu zuen Pasajesko jokalariak. Urruneko jaurtiketa, barrura (0-1).

Zelaian egin zuten jokoagatik, baino, horrelako jokaldietan izaten dituzten akatsengatik galdu zituen Mondrak puntuak. Lehenengo zatia 0-1ekoarekin amaitu zen, eta bigarren zatiko hasierako 15 minutuak ere ez ziren izan gordetzeko modukoak. Jokoari dagokionez hor ibili zen Mondra pattalen, eta orduan jaso zuten

0-2koa. Baina, bigarrena jaso eta Arrasatekoak berpiztu egin ziren. Laspiurrek penaltiz egin zuen 1-2koa eta Pasajes estuasunetan jaritzeko gauza izan ziren zuri-moreak, partidua berdintzeko hiruz-palau aukera izan zituzten-eta.

KONTRAERASOAN HIRUGARRENA

Berdinketaren bila, Pasajesek ondo aprobetxatu zuen kontraeraso bat egin eta gol erabakigarrria egiteko, eta orduan amaitu ziren puntu bat batzeko esperantzak: "Ezin dugu esan ondo jokatu dugunik, ezta urrundik ere, baina iaz baino lasaiago nago, hainbat detaile ikusten ditudala-ko", adierazi zigun Azkargortak.

Gainera, baliteke Mondrak datozent asteotan taldearen erdialdea sendotzeko lagungarri izango den jokalari bat errekuperatzea. Iku-steko dago.



Pasajesko jokalariak baloia errekuperatzen, Mondrakoen begiradapean.

J.A.



JOSETXO ARANTZABAL

te gol aukera on bat; area txikian ez zuen asmatu baloia saretara bidaltzen, baina ondorengo jokaldian azaldu zen berriro ere Imanol. Area barruan defentsei *drilling* egin guran falta egin zioen. Eta bigarren penalti

jaurtiketan ere asmatu (2-1), oraingoan ezker aldera botata. Luzapena luze egin zitzzion UDA-ri; ez ziren izan egoera horretan beste talde batzuk besteko txakur zahar, baina ondo asmatu zuten errentari eusten.

OHOREZKO LIGA

Golak azken unean jaso zituen Aloñak (2-0)

X.U. > BERGARA

Aloñak partidu txukuna egin zuen atzo Zarautzen zelaian, nahiz eta markagailuak ez duen horrelakorik erakussten. Kostaldeko taldea hirugarren mailatik jaitsi berri da, baina iazko hamaikakoari eutsi dio neurri handian, esperientzia handiko mutilik. Badirudi talde hori kategoriako oilar izango dela aurten.

ZELAIAN ONDO

Aloñak kikildu barik egin zion aurre Zarautzi, inongo konplexu gabe. Jokoan parean egon ziren indarrak, baina azken minutuak bikain aprobetxatu zituzten zarauztrek golak egiteko.

OHOREZKO LIGA

Bergarak 2-1 galdu zuen Ordizian

X.U. > BERGARA

Bergarak ondo estutu zuen Ordizia. Mahoneroek egin zuten partiduko lehenengo gola, Oregiren bitartez. Baina, Ordiziak banakoa egin zuen atsedenaldia baino lehenago, 43. minutuan

Bigarren zatia hasi eta 10. minutuan Bergarak 1-2koa jaso zuen, eta egoera horri buelta emateko mahoneroek gora egin zuten. Saiatu ziren binako berdinak lortzen, eta izan zuten abantaila bat, izan ere, Ordizia hamar jokalarirekin geratu zen 75. minutuan, baina Bergarak ez zuen jakin egoera horri etekina ateratzen. Galdua ere, Manu Diaz pozik zen taldeak egin dako lanarekin.

emaitzak eta sailkapenak

3. MAILA

Sailkapena	Punt.	J.
1. Real Sociedad B	9	4
2. Beasain	9	4
3. Amurrio	8	4
4. Amorebieta	7	4
5. Leioa	7	4
6. Basconia	7	4
7. Aretxabaleta	7	4
8. Gernika	7	4
9. Arenas de Getxo	7	4
10. Zalla	6	4
11. Zamudio	6	4
12. C. Durango	5	4
13. Retuerto Sport	4	4
14. Laudio	4	4
15. Elgoibar	4	4
16. Santurtzi	3	4
17. Portugalete	3	4
18. Salvatierra	3	4
19. Lagun Onak	2	4
20. Eibar B	1	4

Emaitzak

Elgoibar-Santurtzi	0-0
Leioa-Retuerto	0-1
Durango-Gernika	1-1
Beasain-Lagun Onak	1-0
Basconia-Zalla	1-0
Zamudio-Laudio	1-1
Amurrio-Eibar B	1-0
Portugalete-Arenas de Ge.	0-1
Aretxabaleta-Amorebieta	2-1
Salvatierra-Real Sociedad	0-1

Hurrengoak (aste barruan)

Beasain-Durango
Gernika-Basconia
Zalla-Zamudio
Laudio-Elgoibar
Santurtzi-Portugalete
Arenas de Getxo-Amurrio
Eibar B-Salvatierra
Reala-Aretxabaleta (eguztena, 20:00)
Amorebieta-Leioa
Lagun Onak-Retuerto Sport

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Sailkapena	Punt.	J.
1. Pasajes	6	2
2. Aurrera Ondar.	6	2
3. Trintxerpe	4	2
4. Tolosa	4	2
5. Hondarribia	4	2
6. Ordizia	4	2
7. Idiazabal	3	2
8. Berio	3	2
9. Zarautz	3	2
10. Euskalduna	2	2
11. Oiartzun	2	2
12. Bergara	1	2
13. Real Union	1	2
14. Hernani	1	2
15. Béti Gazte	1	2
16. EHU Vasconia	1	2
17. Aloña Mendi	1	2
18. Mondra	0	2

Emaitzak

Trintxerpe-Euskalduna	1-1
EHU Vasconia-Aurrera Ond.	1-3
Idiazabal-Berio	1-0
Zarautz-Aloña Mendi	2-0
Ordizia-Bergara	2-1
Hernani-Tolosa	0-2
Oiartzun-Hondarribia	0-0
Mondra-Pasajes	1-3
Real Union-Béti Gazte	2-2

Hurrengoak

Béti Gazte-Euskalduna
Aurrera Ondarra-Trintxerpe
Berio-EHU Vasconia
Aloña Mendi-Idiazabal
Bergara-Zarautz
Tolosa-Ordizia
Hondarribia-Hernani
Pasajes-Oiartzun
Real Union-Mondra

TXIRRINDULARITZA > LEHENDAKARI SARIA

Ramon Domene da Lehendakari sariaren irabazlea

Zapatuan, Oñatin, sailkapenean ez zen gorabeherarik egon eta hortaz, txapelketa Bergarako 44. San Martin Sarian erabaki zen

MIRIAN BITERI > BERGARA

Atzo, domeka, Bergaran jokatutako lasterketa erabaki zen aurtengo Lehendakari txapelketako irabazlea. Seguros Bilbao taldeko Ramon Domene izan zen azkarrena San Antonioko helmugan (02:23:38) eta lortutako puntu esker Lehendakari saria irabazi du. Sailkapen orokorrean, Caja Ruraleko Garikoitz Bravori bi puntuko aldea atera dio.

San Martin sariaren probak 97 kilometro izan zituen. Hasieratik tropela azkar mugitu zen eta hainbat ihesaldi saia-keria egon ziren, hutsean geratu zirenak. Handik gutxira, Seguros Bilbaoko Adrian Lopez eta Etente Sur Gascoigneko Remi Badoc eguneko ihesaldi-ko protagonistak izan ziren. Pelotoiak, baina, Asentzio igotzen hasterakoan harrapatu zituen.

Jarraian, txapelketako lide-rra zena, Garikoitz Bravo, ihes egiten saiatu zen, beste hiru txirrindularikin batera. Helmugarraino Naturgas Energiak lasterketa buruko eta pelotoiaren Jarraian, txapelketako lide-rra zena, Garikoitz Bravo, ihes egiten saiatu zen, beste hiru txirrindularikin batera. Helmugarraino Naturgas Energiak lasterketa buruko eta pelotoiaren

arteko distantzia kontrolatu zuen eta Bravo, Jon Izagirre taldeideaz lagunduta, garaipena lortzen saiatu zen. Baino, helmu-arrak 20 metro baino geratu ez zirenean, pelotoiak, Ramon Domene buru zuela, Bravoren asmoa zapuztu zuen.

IBAN CABALLERO, 40. POSTUAN

Domene, esan bezala, lehena izan zen San Antonioko helmugara sartzen eta Bravo bosgarrena, denbora berean. Iban Caballero, txapelketan parte hartu duen bergarar bakarra, 40. geratu zen.

Sailkapen orokorrean, Mendiko saria Garikoitz Bravordako izan zen eta taldeena Naturgas Energiarenak.

ONATIKO SARIA

Zapatuan jokatutako Onatiko Saria-Etxeberriren oroimenezko Lasterketan ez zen ezer era-bakari. 102 kilometroko lasterketak Naturgas Energiako Noel Martinek irabazi zuen. Besteak beste, Kanpanzar eta Udako mendateak igo zituzten txirrindulariek.



Emozio handiko lasterketa izan zen helmugara arte.

> SASKIBALOA


Saskibaloia gustuko duten gazteek hitzordua dute gaur kiroldegian

Bergara kirol elkarteko saskibaloiko alorrik jokalari berriak bilatzearekin ekin dio. Horren hariara, 1998 urtean jaio eta saskibaloia gustuko duten gazteen-dako hitzordua egin du bihar, astelehenaren 17:15etik 18:15era bitartean, kirolegian. Helburua, esan bezala, saskibaloia talde berriendako jokalariak topatzea da.

> ARETO FUTBOLA

Labegaraietako batzarra martitzenera atzeratu dute

Labegaraietako areto futbol txapelketa aurrera doa, eta taldeek dagoeneko eman dute izena -azken orduan bada ere, oraindik badago aukera izena emateko-. Txapelketa hasi aurreko batzarra gaur egin behar zuten antolatzaleek, baina bihar egingo dute, martitzena, hilak 22. Batzarra 19:00etan izango da, kultura etxearen



X.URTZELAI - M.BITERI > BERGARA

Alex Familiar (Bergara, 1972) Bergara saskibaloit taldeko koordinatzaile berria da. Taldean jokalari moduan ibilitakoa bada ere, bereziki entrenatzale moduan jardun du. Hamahiru urtez kategoria ezberdinak taldeak zuzendu ostean, 29 urte egiantean saskibaloia albo batera utzi zuen. Orain gogo handiz egiten dio aurre etapa berriari.

Zelan aurkeztu zitzaitzun Bergara saskibaloit taldeko koordinatzailea izateko aukera?

Aurretik kirol kontuetaz arduzten ziren bi lagun zeuden: David Urbina eta Mikel Etxeberria *Kapi*. Zikloa agortuta zegoela ulertzten zuten eta zuzendatzak alor horretaz arduratu zen pertsona bat bilatzeari ekin zion. Nire esperientzia eta titulazioren berri zutenez, niregana jo zuen.

Zein izango da zure lana?

Zuzendaritzatik kirol arloa koordinatzearaz arduratu naiz. Funtzionamendu jarraibideak zehaztu eta horren harira koherentea izatean datza lana. Oso arlo zabala da. Besteak beste, entrenatzaleak aukeratu, taldeak koordinatu edo filosofia zehatzta bilatuko.

Jakin daiteke zertan datzan filosofia hori?

Egina dagoen sekzioa aurkitu dut eta hortaz, ideia da hori sendotzea. Sekzioaren giza balibide garrantzitsuenak oinarri-kategorietan jarri eta hortik abiatuta, proiektua sendotzen saiatuko gara.

Hori horrela izan dadin era arduratsuan jokatu behar dugu. Eta horretarako jende prestatua behar dugu; izan ere, etorkizunera begirako emaitzak oinarrian egindako lanetik irtengo dira-eta. Oinarria ez badugu lantzen azkenean ez dugu ezer lortuko. Helburua ez da emaitza; ondo egindako lanaren ondotik dator emaitza.

Zenbat talde izango dituzue aurtengo denboraldian?

Oraindik zehazteke baldin badago ere, gutxi gorabehera hamar talde inguru izango direla aurreratu dezaket: senior mailan, mutilen bi talde; juniorretan, mutilen bakarra; kadeteetan, neska eta mutilen talde bana; infantiletan, hiruzpalau; eta alebinetan, bat edo bi talde.

Zelatan seniorretan talde bi? Saskibaloio jolasteko gogoa duen jendea duzelako?

Bai, hala da. Juniorretan jokatzetik seniorrera pasatzean dagoen jauzia handia da eta talde horrek jauzi hori bete dezake. Ezaugarri zehatzak izan behar du: oraindik senior kategoriara egin ez den jende gazteak osatuko du hori. Talde horretako jokalariek bi urte izango dituzte lehenengo taldera jauzia emateko gaitasuna duten edo ez erakusteko. Espiritua hori da. Argi geratu behar da talde horren helburua ez dela lehiatzea, formatzea baizik. Probinzia mailako bigarren kategoria jokatuko du.

Alex Familiar > Bergara saskibaloit elkarteko koordinatzailea

"Helburua ez da emaitza; ondo egindako lanaren ondotik dator emaitza"



Bergara saskibaloit taldeko koordinatzaile Alex Familiar, entrenatzen eta partiduak jokatzen dituzten Labegaraietako instalazioetan.

JOSETXO ARANTZABAL

Nola dago Probintzia mailako lehenengo kategoriako taldea?

Aurreko denboraldiko igorarekin, argi daukate oso denboraldi gogorra izango dutela eta mailari eustea egindako lanari eta taldearen jarreneri baldintzatuta egongo dela. Guk ez ditugu presionatuko.

Zalantzabarik, senior mailako lehenengo talde hori izango da Bergara taldearen aurpegi ezagunena. Beherago dauden taldeei begira, senior beti erreferente da. Niri, dena den, gusatutako litzaidake gainontzeko taldeen lana ere goraipatzea.

Azken urteotan zuzendaritzaz aldatu da. Horrek Bergaran saskibaloia bultzadari eman diola ematen du, ezta?

Bai. Dena den, ni ez naiz pertsona egokiena horri erantzuteko. Azken zortzi urteotan taldeetik kampo egon naiz eta hortaz, ez dakit denbora horretan zer gertatu den. Bainan, nik ere sen-

tsazio hori daukat. Ni joan nintzenean taldearen gestioa entrenatzileen eskutik egiten zen eta orain, kudeaketa hori guraso-en eskuetan dago. Horren harira, David Urbina eta Mikel Etxeberria *Kapi*-k oso lan ona egin dute.

Azken horren harira, azken urteotan taldeak antolatutako 3x3 txapelketak erakusten du lan egiten ari dela...

Zalantzabarik. Joan den urtean ez nuen ikusteko aukerarik izan; baina, aurten, bai. Herriko plazan egiten den ekimen positibo da; saskibaloia hor dagoela agerian uzten duen ekimena. Jendea saskibaloira erakartzeko modu ona da.

Zer nolako zaitasunei egin behar die aurre taldeak?

Ekonomikoak albo batera utzita, kirol alorrean instalazio egokien falta dugu. Topatu dudan arazo handienetarikoa da. Labe-

garaietako kantxa badago ere, instalazioa ez dago ondo. Neguan hotz handia egiten du eta udan, berriz, bero larregi. Gainera, kantxa bakarra dago han. Gainontze-ko herriean barruko kantxa gehiago daude. Dagoeneko Udalari jakinarazi diogu barruko kantxa gehiago behar ditugula; ez bakarrik saskibaloirako, baita han praktikatzen diren beste-lako kirol jardueretarako.

Horretaz gain, entrenatzileen egitura sendotu behar dugulakoan gaude. Titulazioa duten eta prestatuta dauden entrenatzileen behar ditugu taldean; ekonomikoki esfortzu handia egin beharrean egon beharko gara entrenatzaleak formatzeko. Proiektua garatzeko oso garra-nzitsua da entrenatzileen egitura sendotzea.

Zenbat jende dago lanean gaur egun taldean?

Zuzendaritzan bost eta zazpi artean daude; entrenatzaleei

dagokionez, beriz, hamar lagunetik gora egongo gara taldeen guztieta.

Beste zaitasun bat izan daiteke jendea saskibaloira zelan erakarri?

Bai. Bainan, kontuan hartu behar da instalazioen kokapena. Hori ezin daiteke taldearen helburuetako bat izan. Helburua da lan egitea eta neska-mutilak gus-tura ibiltzea. Ondo jolasten badute, baliteke jende gehiago etortzea partiduak ikustera. Atsegina da partiduetan publi-koia izatea baina, esan bezala, ez da buruan dugun helburuetako bat.

Amaitu aurretik, noiz hasiko duzue denboraldia?

Senior mailakoek, zapatauan, hilak 26, hasiko dute, Bergaran. Bergara saskibaloit taldeko gai-nontzeko taldeak urriaren erdialdean ekingo diote aurtengo denboraldiari.

OSASUNA > MOTXILEN PISUA

Motxilaren pisua nolakoa, bizkarraren egoera halakoa

Motxilaren pisuak lotura zuzena du ikaslearen bizkarraren osasunean eta garrantzitsua da motxila egokia erostea

OIHANA ELORTZA > ARRASATE
Eskolako materialaz betetako motxilek ikasleen bizkarraren sasoia eta osasuna baldintzatzen duela kontuan hartuta, motxila egokia erostearen garrantzia azpimarratu du Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen elkarrekin. Horrela, motxila egokia erosteko kontuan izan behar direnak jaso ditu bere webgunean. Adibidez, haurrek hainen pisuaren %10 baino gehiago ez eramatea aholkatzen du, tirante zabalak dituen motxila erostea eta bizkar gainean eramatea, ez gerriaren alturan. Pisu gehien duen materiala-liburuak-motxilan bertzak sartzea ere aholkatzen du, bizkarretik ahalik eta gertuen, eta motxila bi sorbaldetan eramata ere hobesten du.

POSTURA EGOKIA GELAN
Bestalde, gelan eserita egoteko postura egokiena bizkarra aukiaren kontra zuzen dagoela eserthea dela aholkatzen du. Aulkia mahaiarengandik gertu egon behar dela ere badio Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen elkarrekin. Postura okerrak ez hartzeko, atrila edo euskarria erabiltzea ere gomendatzen du.



Ikasle bat motxila eskolako materialaz beteta.

TILTHZ

MOTXILA EGOKIA EROSTEKO GOMENDIOAK

- Motxila ona motxila egokia da. Seme edo alabak behin eta berriz eskatu arren, ez erosi kolore deigarrienak edo marrazki gustukoak dituena.
- Egiaztago motxilaren tamaina umearen tamainarenak egokia dela eta ez dela oso pisutsua: hutsik dagoen ume baten motxilaren pisua ez da kilo erdi baino gehiagokoak izan behar.
- Tirante zabalak dituen motxilen artean aukeratu.
- Diseinu anatomikoa izan behar du; hobe da tiranteak eta bizkarraldea akoltxatuak izatea.
- Umearekin joan dendara eta berarekin batera erosi. Ondo probatu etxera eraman aurretik.
- Gurpilak dituen motxila bat erosteko asmoa izanez gero, egiaztago gurpilak ondo biratzen dutela.
- Motxila eskolako materialaz bete ostein, pisatu. Motxilak ez du inoiz umearen pisuaren %10a baino gehiago pisatu behar; hau da, umeak 30 kilo baditu, motxilak 3 kilo baino gutxiago.
- Hobe da motxila bizkarraren erdi edo goi aldean eramatea, gerriaren alduran baino.



Aita-alabak elkarrekin jolasten.

RAFITORRES

EDOSKITZEA > BULARRA EMAN

Ondo hazteko elikagai guztiak ditu amaren esneak

Umea hazteaz gain, bularra emateak ama ere laguntzen du hobeto osatzen

O.E. > ARRASATE

Amaren esneak umea hazteko elikagaiak ez ezik, hainbat substantzia bioaktibo (antigorputzak, hormonak...) ere baditu eta horregatik da hain ona umea hazteko. *Eroski* aldizkariak dioen moduan, arrazoi horregatik sariatzen dira esne egokituen industriak bularreko esnearen osaera berdintzen.

OME

Osasunerako Mundu Erakundeak gomendatzen du gutxinez sei hilabete egin artean ematea bularra. Ama egin berri diren emakumeen %80ak erabakitzentz ei du seme edo alabari bularra ematea. Kopuru hori, baina, jaitsi egiten da umeak hiru hilabete dituenean eta sei dituenean, %45 baino gutxiagok jarraitzen du titia ematen.

DESINFORMAZIOA

Eroskik jaso duenaren arabera, zientziak, OMEk eta profesionalek argi dute umeari bularra ematea umearendako zein

amarendako dela ona, osasun-garria, baina behar baino lehen uzten diotela emakume askok bularra emateari.

Horren arrazoiak bat desinformazioa eta mito faltsuak izan daitezke artikulu horren arabera. Edoskialdiko Aholku-Emaileen Nazioarteko Kontseiluak nabarmendu duenez, okerreko mitoek eta bularraren gaineko aurreiritziek (mastitis, titiburu atzeratua...) eragin zuzena dute erabaki horretan.

DATUA

%80

AMA BULARRA EMATEN

Ama egin berrien %80ak erabakitzentz du bularra ematea Eroskire datuen arabera; hiru hilabetetara gutxiago dira eta seigarren hilabetan, %45 baino gutxiagok jarraitzen du.



Ume bat bularra hartzen.

MAMIS

AITATASUNA > KOLABORAZIOA

"Gizontasuna bizitzeko modua aldatuz doa"

Aitatasunetik berdintasunezko gizartea lortzeko ekarpenak egin daitezkeela dio Iñaki Kasaresek

O.E. > ARRASATE

Iñaki Kasares santurtziarrak aitatasunaz idazten du *Guraso.com* atarian. Lehen artikuluan bere aitaren garaiko gizonen eta bere adinako artean ezberdintasunak ikusten dituela dio, "zorionez gizartea alda-

tzen" dabilela. "Gure aita inoiz ez zen arduratu seme-alabak zaintzeaz, oso gutxitan jolastu zuen gurekin, eta alderantzizko dirudien arren, gizon ona zen gure aita. Guretako onena gura zuen berak", dio Iñaki Kasares kolaboratzaileak. "Gaur egun gero

eta gizon gehiago hasi gara uertzten gure presentzia ona dela umeendako eta guretako, gero eta gehiago ari gara konturatzen orain arteko gizontasun eredu kaltegarria zela guztidako", dio. "Aitatasunetik ekarpen handia egin dezakegu sexismorik gabeko eta berdintasunezko gizartea eraikitzeo, jarrera batzuk erotik aldatuz", jarraitu du Kasaresek.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
zatoz gure webgunera

**guraso.com**



> AKUSTIKOA

Mursegó, Saioa eta Anni B Sweeten arrakasta, Arrasateko Kulturaten > **32**



> DANTZA TXAPELKETA

Aitzol Enak eta Maite Lazkanok irabazi zuten Moises Aspiazu saria > **33**



> PUNKA

Itxungi Irratiaren aldeko jaialdia egin dute asteburuan Arrasaten > **33**

Sonoritate berria, eta ibilitakoaren onesprena

'PAYOLA'

70eko hamarkadako kutsua duen diskoko bost kantu jo zituzten

HAUSTURA BARIK

Azken lau lanetako errepasoa eginez, zuzeneko indartsua

NON: Eskoriatzako kiroldeginan.

EGUNA: Zapatura, irailak 19.

ZENBAT JENDE: 1.000 lagun inguru.

IRAUPENA: Hiru ordu eta erdi.

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Aurreikuspenak bete ziren, duda barik. Euskal Herriko bazter askotako eta Espainiako hainbat musika zale batu ziren Berri Txarrak taldearen *Payola* diskoaren aurkezpen ofizialean.

Aitzorrotz kultura elkarteak - antolatzalea- eta Berri Txarrak taldekoek aurkezpena jaia bihurtu zuten; eta lagunak eraman zituzten agertoki gainera.

DEABRUAK, ASPALDIKO LAGUNAK

Portugalgo Simbiosis-en metal hardcorea ezin izan genuen entzun, baina Tolosako Deabruak Teilituetan taldea oso sasoi onean ikusi genuen eta kiroldegia ez zitzaien handi gelditu. Euren ibilbideko errepasoa egin zuten, hard-

core melodikoa eta rocka uztartuz; eta opari moduan, Gorka Urbizuren laguntzarekin, Peiremans+ proiektuko kantu bat interpretatu zuten, Weezer gogoratuz.

PROFESIONALTASUNA ETA ERRONKA

00:30ean Lekunberriko hirukotea agertokira igo eta dezibeloak dezenetako igo ziren, baita zirrara ere. Gogor hasi ziren, euren kantu gogor eta metaleroekin, eta jendea pozarren. Hala, *Payola* ez, baina aurreko beste hiru diskoetako

errepasoa egin zuten; eta halako baten, abestien sonoritatea erabat aldatuta, *Payola*, *Folklore*, *Gure dekidentziaren onenean*, *Dortoken mendeian*, *Maravillas* eta *Placerboren* kantu bat eskaini zituzten, gordin, rockero eta 70eko hamarkadako kutsarekin.

Talde sendoa da, oso profesionala eta haustura barikoa, baina hori ez da berria. Gehigarria da bestelako sonoritatean ere arraino urretan moduan mugitzen dela eta beste erronka bat bete dutela.

**Gorka eta Aitor >
Berri Txarrak**

"Inperfekzioak eta bat-batekoak xarma handia daukate"

I.B. > ESKORIATZA
Kontzertua hasi aurretik, Gorka Urbizuri eta Aitor Goikoetxearen bizipahiru galdera egin genizkien.

Zer dela eta aurkeztu duzue diskoa Eskoriatzan?

Lekua pentsatzen genbiltzala. Eskoriatzatik deitu ziguten, eta pentsatu genuen polita izan litekeela hiriburu etatik kanpo diskoa aurkeztea; gainera, Aitzorrotzeako ezagutzen genituen.

Zer ikasi duzue Steve Alvinirekin? Eta berak zuekin? Zer da bera gehien harritu duena?

Ikasi dugu perfekzioaren bilajoea ez dela beti bide onena; bat-batekoak eta imperfekzioak ere xarma handia dutela. Eta berak? Esaten zigun oso berezia zela beste askok moduan ingelesa erabili beharrean, guk euskaraz abesten dugula.

Noizko kale edo plaza bat Lekunberrin? Enbaxadore onenak zarete...

(Barre). Behin deitu ziguten jaientan pregoia esateko, baina lotsa eman zigun... Aspaldian harrituta daude taldearen oihartzunarekin. Beste taldeak ez zegoen herrian; hala, aurreko egiteak asko indartu gaitu, eta gure izaera barruan dago hori.



Gorka Urbizu taldeko 'Frotman'a Eskoriatzako kiroldeginan.

JOSETXO ARANTZABAL



UDAKO ARGAZKien ASTELEHE

Argazki guztiak fotoblog honetan:



ITZALA. Malagako Genalguacil herrian erakusketa egi-ten dituztenean eskulturak kendu beharrean, herrian uzten dituzte. Argazkian, horman zegoen marrazkia nire itzala simulatzen. /Argazkia: Vanessa Valladolid /Arrasate



TXIRRINDAZ. Santa Barbaran, Donibane Lohizuneko paraje ederrenea aterata aurtengo Abuztuan . /Argazkia: Ane Jauregi /Bergara



ZER IKUSI DAU HONEK BA? Lagun batzuk Zarautz-Geta-ria ibialdian aurkitxu gauen laguntxo bat da. Udaleko egun baten izen zan. /Argazkia: Ane Osinaga /Arrasate



LASAITASUNA. Do Sancho hondartzaren Fernando de Noronha irlan. Brasilgo hondartzarik ederrena dela diote. Ez da leku turistikua, limitatuta bait dago turis-ten sarrera, inor ere ez hondartzan ordu hortan, lasai-tasuna! /Argazkia: Jon Garai /Arrasate



ARRANTZAN. Sokoako espigoian arrantzan arratsalde baten. Aurtengo Abuztuan ateratako argazkia. /Argazkia: Maite Jauregi /Bergara



BETAURREKOAK. Uztaileko arratsalde berotxo batean, eguzkitako betaurrekoak ere Saturra-rango hondartzara eraman genituen. /Argazkia: Gemma Carballares /Eskoriatza




BLED LAKUA. Eslovenian dagoen Bled herriko laku. Laku ondoan dago eliza eta atzeko planoan gaztelua. /Argazkia: Gorka Larrañaga /Bergara



PASTORINHA. Argazki honi eta bertan agertzen den neskari, "A Pastorinha" deitu diet. Ikaragarriak Por-tugal kostaldeko ilunabar eta egunsentziak... are gehia-go furgonetan Benito Lertxundik laguntzen bagaitu... /Argazkia: Haritz Iñurritegi /Arrasate



ITZALPEAN. Aurtengo udan Extremaduran eindako argazkixa, ein dauen beruakin non hobe? /Argazkia: Lara Gonzalez /Arrasate



LA CALETA. Cadiz hiriko "la Caleta" hondartzaren iluna-barrean aterata. /Argazkia: Itziar Gardoki /Arrasate



OKUPA Y RESISTE! Bartzelonako parke Güell-ekitik ikus-ten ziren bista ederrak. /Argazkia: Miren Lete /Eskoriatza



BISTA EDERRA. Mediterranuan ziar kruzeroko gelatik bista ederra, relajanti... /Argazkia: Nebat Roo Casai /Arrasate

NEKO GOIENKARIA V. LEHIAKETA



www.goiena.net/blogak/argazkiak



OLATUEN BULTZADA. Zarautzko plaian, Alaitz aidean ipini zauien olatuek. (2009ko irailak 5). /Argazkia: Maider Aizkorbe /Aretxabaleta



ILUNABARRA LAPONIAN. North kapp (Laponia) erreka-txoa lakuan atsedena hartzen eguzkia ezkutatu ezin den lekuaren. /Argazkia: Enrike Letona /Arrasate



OLATUA. Sokoako fuertean dagoen olatu-horman (rompeolas) aterata, dutxa eder bat hartzan. Aurtengo abuztuan aterata. /Argazkia: Enrike Jauregi /Bergara



JIRA TA BIRA. Goisekund: Himalaiako jaialdi erraldoia. Urteko festarik handiena da. Mendi magaletako indigenen elkargunea da; ezagutzea eta batez ere bikoteak eratzeko. Danbor nekaezinak, adar hotsa,... gau osoko festa sortzen dute lakuaren ohorez, beraien ohorez. /Argazkia: Larraitz Arando /Aretxabaleta



ALBARRACINEKO ARKUPEAK. Albarracineko udal-letxeko arkupetik eliza eta herria ikus daiteke. Teruelen kokaturik dagoen herri hau ikustekoa da. /Argazkia: Iñaki Villar /Aretxabaleta



INTSEKTU KOLERETSUA. Brasil, Argentina eta Paraguay banatzen duen urjauzi indartsuetan ateratak argazkia da hau. Indar basati hauen artean, naturak alde samurra zuela ere erakutsi zigun; intsektu txiki koloretsuak guregana bidaliz. /Argazkia: Garikoitz Iturbe /Aretxabaleta



ILUNABARRA ISLANDIAN. Uztailean Islandiako Landmanalaugar lurretan ateratako iluntze zoragarri bat ikus daiteke, benetan txunditurik utzi ginduena. /Argazkia: Itsaso Arrayago /Bergara



SUZKO ERRUBEREI BEGIRA. Donostiako Aste Nagusitan ez dago hau baino ederragorik. 2009ko abuztuak 9an aterata. /Argazkia: Tere Agirrebal /Antzuola



ARRATSEKO LAINO GORRI... goixeko iturri? Ba hala suertatu jakun, bai! San Blas-eko artxipielagoko (Panama) irla zoragarri hontako parajak gozatzeko ilunabarra. Ilundu berritan Kuna arrantzaleek itxasotik jasotako langosta goxoa afaldu ostean lotaratu, eta... A ze ekaitza goixian goix! /Argazkia: Aimar Elortza /Arrasate

Oinarriak:

- Parte-hartziale bakotzeko, gehienez, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:

 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta nongoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
 - Argazkiak jasotzeko epea: uztailaren 3a - irailaren 17a.
 - Argazkiak aurkeztu ahal izango dira papelean edo digitalizatuta (paperean ondo erreporduzitzeko adinako bereizmenarekin).

- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK e-postaz argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienak elkarri: ARRASATE: Otarola Lizentziaduna 31. BERGARA: Irizar jauregia, Barrenkalea 33. ARETXABAleta: Durana 11, 2. solairua, edo Basabe poligonoa E-0-5.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.

Sariak:

- **1. saria:** Olympus E-420 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- **2. saria:** Cantabriako Treceño herritar Hotel Palacio de Guevara-n Astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbatekoafari berezia barne Arrasate Bidaia-en eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxearen.



Babeslea:



Laguntzaileak:



GURE AMETSa JATETXEA



OLYMPUS
Your Vision, Our Future



Amaia Arroitajauregi -Mursegó- eta Saioa Garin, elkarrekin, Leonard Cohenen pieza bat jotzen egubakoitzeko kontzertuaren bukaera.

IKER BARANDIARAN

MUSIKA > MURSEGO, SAIOA ETA ANNI B SWEET

Emakumeena da oraina eta geroa

NON: Arrasateko Kulturaten.
EGUNA: Egubakoitzka eta zapatua.
ZENBAT JENDE: 200 bat lagun.
ESTILOAK: Folk, pop, esperimental...

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Bukatu da Kulturate Akustikoa ekimena eta antolatzairen eta entzuleen artean oso kutsu ona itxi du. Proposamen oso interesgarriak izan dira eta oraingoan, aurreko asteburuan baino gehiago, jendeak oso ondo erantzun du; aretoa bete egin zen bi egunetan.

Egubakoitzean eskaintza bikoitza izan zen: Mursegó alde batetik, eta horren ostean, Saioa. Biak bakarlaia, baina oso estilo desberdinak.

KONTZERTU PEDAGOGIKOA
Mursegó Amaia Arroitajauregi eibartarraren projektua da, eta berak bakarrik ia orkestra bat ordezkatu dezake taula gainean. Celloa hainbat talderen (Anari, Lisabö...) jotzeagatik da eza-

guna, baina Kulturateko emanizunean erakutsi zigun cello jo-tzaile bikaina izateaz gain, are eta sortzaileagoa dela.

Hain zuzen ere, aparatutxo bat erabilita, abestutako esaldiak, teklatutxo baten doinuak edo celloaren pieza zatiak zuzean grabatzen zituen; eta abestiak aurrera egin heinean, *loop* baten moduan jaurti egiten zituen, une horretan interpretatzeko zegoena borobiluz edo bestelako ñabardurak gehituz. Aurre-grabatu barik, guztia unean eginda.

GIRO ILUN ETA SENTIKORRA

Inprobisazioa barra-barra eta, euskara, ingelesa, portugesa eta errusiera tartekatz, kantu poltak interpretatu zituen Mursegók, baita Kraftwerk eta PJ Harveyren kantuak ere. Bainan kantuak zelan egin daitezkeen ere erakutsi zigun. Ikusleek oso ondo hartu zuten; eta zur eta lur gelditu ziren eibartarrak kantuak egiteko daukan jarioarekin.

Horren ostean, Saioa Garin bakarlaia hartu zuen lekuakoa. Gitarra elektrikoa erabili behar izan zuen, nahiz eta akustikoa-reakin ohitura dagoen; eta horrek deseroso jarri zuen musikaria.

Berarekin giro ilunagoetan murgildu ginan, ilun, geldo eta sentikorragoetan, folk eta pop-rockaren mugetan barrena. Kantu zahar batzuk eskaintzeaz gain, *Matrioska heart* diskokoak ere jo zituen. Bukaera, Mursegok lagunduta, Leonard Cohenen kantu bat interpretatu zuten.

ANDALUZIAKO GOXOTASUNA

Zapatauan, bukatzeko, Malagako Ani B Sweet-ek eta haren taldeak Kulturateko entzuleak liluratu zituzten. Ahots ederra, xamurtasuna, folk sustraiak dituen kantuak pop-era bideratuta eta talde dotorea alboan. Hala, malagarrak teknikatua, gitarra, biola eta kontrabaxua ekarri zituen berarekin. Eta ez hori bakarrik, *road manager*-a erritmoaz arduratu zen pandaretaren laguntzarekin.



Anni B Sweeten ahotsak entzuleak liluratu zituen.

JOSETXO ARANTZABAL



09/10 ikasturtea

MATRIKULA EGITEKO EPEA ZABALIK!

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
E-posta: euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
E-posta: berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4
20550 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62
E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Intxaurruxeta 10
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
E-posta:
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

I AM
TÚ ERES

هي ...

GU GARA
VOUS ÊTES
ELES SÃO

Elkar uertekia, euskara.
MA ESTEÑOS SOMOS, EUSKERA
SOMOS TÚ, SOMOS ELLOS. SOMOS
PARA COMPRENDER NOSOTROS.

www.euskalnet.net

IBIL

DANTZA > 25. MOISES AZPIAZU TXAPELKETA

Onenen txapela eta zapia, etxean

NON: Bergarako Udal Pilotalekuak.
EGUNA: Egubaikoitza, irailak 18.
ZENBAT JENDE: 400 lagun inguru.
IRAUPENA: Ordu eta erdi.

TXOMIN MADINA > BERGARA
Hasiera batean hamar baziren aurrekusitakoak, azkenean zortzi izan ziren egubakoitz iluntzean Bergarako Udal Pilotalekuak ospatu zen XXV. Moises Azpiazu txapelketan parte hartu zuten bikoteak. Horietatik bi, gainera, Bergarakoak bertakoak ziren: batetik Aitzol Ena eta Maite Lazcano eta bestetik Aritz Arrillaga eta Amaia Bolinaga.

400 pertsona inguru hurbildu ziren pilotalekura, eta aipatu beharra dago, gaztetxo asko zeudela ikusleen artean.

LAZKANOK ZAINTIRATUA

Estanga anai-arrebek jotako piezek lagunduta, parte-hartzaileek frantses txikian fandangoa eta korapiloan arin-arin bana dantzatu behar izan zituzten. Carlos Sarriegi eta Gabriel Alonso ibili ziren epaile lanetan.

Aitzol Enak eta Maite Lazkanok arazoak izan zituzten dantzan hasi eta berehala. Lazkanok zaintiratua izan zuen eta ondorioz, taula gainetik jaitsi behar izan zuen.

Epaileek orduan, pare bat minutu eman zizkieten onera etorri eta berriz dantzan hasteko. Halaxe egin zuten, bukaeran ikusi zen moduan, emaitza paregabea lortuz gainera.



Aitzol Ena eta Maite Lazcano, irabazle egin zituen dantza saioko une batean.

JOSETXO ARANZABAL

BERDINKETA

Epaimahiaren puntuak batzen hasi zirenean, hirugarren posturako berdinketa egon zen. Ondorioz, Arrillaga eta Bolinagak berriz ere dantzatu behar izan zuten; kasu honetan, Pasaia eta

Lezoko Idoia Besada eta Iker Sanzen aurka. Azkenean, hauek izan ziren hirugarrenak. Bigarren Hernaniko Xabier Segura eta Lierni Martiarena kokatu ziren; eta sari nagusia, Ena eta Lazkanorenztat izan zen.

Pozik zeuden bergararrak; adierazi zutenez, zaintiratua eta gero irabazteko aukera gutxi ikusten zituzten-eta. Aitorrutzten, era berean, etxean dantza-zean, normalean baino urduria-jogo jartzen direla. Hurrengo hel-

burua, urrian Seguran jokatuko den Euskadiko Txapelketa dute.

Abarka dantza taldeko kideek iragarri zuten Gabon inguruan Moises Azpiazen omenezko ekitaldi berezi bat prestatu guran dabilzala.

MUSIKA > ITXUNGI IRRATIAREN ALDEKO JAIALDIA

Doinu gogorrak, Itxungi pizteko

TALDEAK: Interpret Desconocido, No hope, No hay soluzion, Disorders, Plan B, Last Strength, Fridays Crew, Johnny Gerriwelt, Aggresive Combat...

TXOMIN MADINA > ARRASATE
Bi helburu zituen asteburuan Arrasaten Itxungi Irratiaren inguruan antolatutako jaialdiak: irratia bera ezagutzen ematea eta finantzazioa lortzea.

Balorazioa egiterakoan antolatzaleak gustura agertu dira, euren esanetan bi helburuak bete dituzte-eta.

HAMAR TALDE
Bi egunetan egin dute jaialdia, eta denera 400 pertsona inguru pasa dira Arrasateko gaztetxetik kontzertuak ikustera.

Egubakoitzean bost taldek jo zuten. Material Rechazado ere jotzekoa zen, baina arazoren bat medio, No Hope taldeak hartu zuen bere leku.


Zapatuan beste bost talderen txanda izan zen. Kanpoko jende asko ere etorri zen, eta horrek bizitasuna eman zion kontzertuari. Estiloei dagokienez, punk, Oi! eta rocka izan ziren nagusi.

Orain programazio propioa lantzen ari dira Itxungi irratikoa; asmoa da berau urria erdialdetik aurreratzen hastea.



Aggressive Combat taldekoak, zapatuan eskaini zuten kontzertua.

IMANOL SORIANO



JOSETXO ARANZABAL

Philipe Menard: gizon bakarra, nahikoa

50 pertsona inguru bildu ziren egubakoitz gaelean Oñatiako gazteluan Philipe Menard bakarlari frantziarra ikusteko. Ohi duen bezala, bakarrik azaldu zen agertoki gainean, beharrezko instrumentu denak berak joaz. Giro intimoa sortu zuen, bere abestieei eta baita Rory Gallagher eta Jimi Hendrixen bertsioei esker ere.

iragarkilaburak.com

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Sagasti auzoan 89 metro koadroko etxebizitza salgai edo alokagai. Sukaldea, hiru gela, egongela, bi bainugela, bi balkoi eta despentsa. Jantzia utziko genuke, garaje itxiarekin. Deitu ezazu telefono honetara: 687 11 07 21.

Aramaio. Bi familiendako harrizko etxea, lorategiarenak, salga. Paraje lasaien (Erratbarrin) eta herriko oso gerto. Prezio interesgarria. Deitu ezazu telefono honetara: 685 71 35 63.

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. Prezio negoziazaria. Deitu ezazu telefono honetara: 659 64 67 38.

Aretxabaleta. Markole, 100 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi terraza (150 metro koadro), ganbara eta garajea. 650 34 89 85.

Arrasate. Etxebizitza salgai Erguina kalean. Hiru logela, egongela, sukaldetza eta komuna. Deitu ezazu telefono honetara: 606 86 71 97.

Bergara. Etxebizitza salgai Boluko Koldo Eleizalde kalean. Argitsua. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldetza eta terraza. Berogailuarekin. Jantzia utziko genuke, Prezio ona. Deitu ezazu telefono honetara: 655 73 16 1.

Noja. Guztiz jantzia dagoen 70 metro koadroko duplex ederra salgai. Bi logela, sukaldetza, egongela, handia, bi komun, bi terraza, garaje itxi. Urbanizazio primitibuan, igerilekuarekin. Sei urteko eraikina. Aukera ona. Deitu ezazu telefono honetara: 667 31 37 45.

